



ttipi-ttapa



TTIPI-TTAPA paperean ez / 24



Aresoko GEREÑO-BRAZETE familia

FAMILIAN KORONABIRUSARI AURRE EGINEZ

Lau urteko semeak koronabirusean positibo eman ondotik, etxean bakartuta, gaixotasunari elkarrekin aurre egitea erabaki du Aresoko Gereño-Brazete familiak. / 34

Euskaraz ikasi nahi eta ezin

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu dute eskualdeko ikasleek. / 8

SINADURAK



ZOZKETA / 48



«Drogen kontsumoaren aitzinean, aisialdiko eskaintza aberatsa izatea prebentzio neurri bermatua da»

Gazteen arteko substantzien kontsumoa eta gaiaren inguruan duten jarrera izan ditu hizpide Arantxa Gamio Bortziritako gizarte hezitzaileak TTIPI-TTAPAREKIN. / 10




Aranon sortu nahi duten Kontsumo Taldea hizpide Xabi Kuetorekin / 33

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIEsek **Nafarroa Garaiko
mendialdean** hartu duen
111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa

32.000 irakurle



SEXUAREN ARABERA


 **%54,6**
EMAKUMEAK

 **%45,4**
GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA





NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA

Konpromisoa

Fruta-dendan andre heldu bat nuen aurretik. Dendariari menestra ona egiteko sekretu batzuk azaldu ondoren letxuga bat eskatu zion. «Nongoak dira letxugak?» galdetu zion andreak dendariari. «Hara! Erosle arduratsua», pentsatu nuen.

«Hauek Erriberakoak dira eta beste hauek bertako baserri batekoak. Berdin balio dute: euro eta hamar», erantzun zion dendariak letxugak esku

banatan hartuta. Bildu berriak ziruditen biek eta itxura ederra zuten baina nabaria zen Erriberakoak handiagoa zela. «Emadazu bertakoak» erantzun zion bezeroak. Tamaina berdine-

koak izanda prezio berdinean Leitzakoa aukeratzea erraza zen. Baina prezio berdinean letxuga handiena proportzioan merkeagoa izan arren andreak bertakoaren alde egin zuen. Ez da oso zaila arrazoia ulertzea: konpromisoa. Bezeroak asko egin dezakegu bertako ekoizle txikien eta, bide batez, ingurumenaren alde, eta baserriarrek gaur egun bizi duten egoera negargarriak hobera egin behar badu horixe beharko dugu: askoz ere konpromiso handiagoa beraiekin.

**«BEZEROOK ASKO
EGIN DEZAKEGU
BERTAKO EKOIZLE
TXIKIEN ALDE»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Maite ditut maite...

Gure bazterrak, lagunekin eta senideekin mendira noanean; gure karrikak, umeen jolas, irri eta oihuz beterik daudenean; gure espaloiak, jendea kapazoarekin mandatueta doanean; gure bideak, korrikalariak, bizikletek eta aulki gurgildunek ere erabiltzen dituztenean; gure etxeak, bisitak hartzen ditugunean; gure ostatuak, pintxopotera ateratzen garenean...

NABARMENTZEKOAK



ENGRAXI
URRIZA ZUBITUR
ZUBIETARRA



JULI ELIZALDE
DANBORIENA
ETXALARTARRA

Aunitz zarete TTIPI-TTAPAK ERRAN.EUS-EN abiatu duen *Etxean geldituko naiz* kanpainarekin bat egin duzuenak, bideo edo argazkiekin; tartean, 86 urterekin, Engraxik.

Martxoaren 16ean 100 urte bete zituen Barbereneko Juli Elizalde Danboriena etxalartarrak. Lore sorta eta opari aunitz iritsi zitzaizkion etxera, nahiz eta ezin izan zuten eguna familian ospatu.

ATZERA BEGIRA



2010-04-01 · TTIPI-TTAPA · 515 zk.

Rakel Ariztegiarekin landa turismoaz

Duela hamar urte, Hiruak Bat Landetxeen Elkarteko lehendakari kargua hartu berrikan, Rakel Ariztegi oiztarra elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPAK. Landa turismoaren orduko egoera izan zuen hizpide eta krisi ekonomikoaren eragina «ikaragarri» nabaritu zutela kontatu zuen: «prezioak egokitzeko eskatzen dute bezeroek, eta hamabiren lekuan hamahiru etorri badira, hamahirugarrena ez kobratzeko... Badira krisi garaia izanagatik lan egiten den urteko sasoiak: Aste Santua, abuztua... Baina orain garai horietan ere zailagoa da». Elkarlanaren garrantziaz ere aritu zen: «kontua nahiko zaila da denontzat eta bakarrik egonda, oraindik zailago izanen da. Elkarlanak aunitz laguntzen du eta krisi garaian oraindik gehiago».

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,

Pablo Irastorza, Mattin Larraide,

Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz,

Marga Erdozain, Maitane

Maritorea, Arantxa Iturralde,

Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,

Jaione Zabalza, Nerea Mortalena,

Virginia Oteiza, Pierre Bastres,

Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier

Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione

Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€

Nafarroako
Gobernua Gobierno
de Navarra

mecna

BAZTANGO
EUSKARA

BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA

Malerrekako
Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI

Alarma gorria

Ilbeltzean mahuka motzean ibiltzea ez zen seinale ona. Otsailean, Zaldibarren, mendiak goitika bueltatu zizkigun bere gainean utziak genituen zabor tona batzuk; bi gizonen euren biziarekin ordaindu zuten bertzeek gaizki egina. Zerbaiten abisua zen. Txina urrunean, birus ezezagun bat hasia zen ordukoz bere azioa egiten.

Telebistako leihotik patxada ederrean segitu genuen partida. Sekulakoak egiten ari zen xomorroaren izena ikasi genuen: koronabirusa. Erraten zuten mundu osora zabalduko zela eta neurriak hartu beharko genituzkeela tenorez, baina gure agintariak ez zuten denbora galtzeko gogorik batzuen arkamele kantak aditzen. Eta gu ere kontent, geure axolagabekeria gozoan. Epidemia gure ateraino ailegatu zenean ere, jende jakintsu zentzuduna garrasika ari zitzaigula, ostatuan erdi bromatan aipatzen genituen haren kontuak. Txinan den-dena geldiarazia zuten, kutsatze bideak mozteko. Hemen? Bai, zera! Europan bizi gara, aizu! Mamorro triste batengatik horrenbertzeko beldurra?

Lerro hauek idazten ari naizen honetan (martxoak 23), kutsatuen eta hildakoen zifrak goiti doaz egunetik egunera mugaren bi aldeetan. Orain txinatarrak ari zaizkigu begira (eurek egoera kontrolpean dute). Ospitale eta osasun etxeetan

**«ALARMA EGOERA HAU
AUKERA EZIN HOBEA
IZATEN AHAL DA
PENTSATZEN HASTEKO»**

abaila ari dira lanean, baina arrunt kexu dira jendea eta materiala falta dituztelako. Garbitzaileak ere abasto eman ezinik. Nor oroitzen da haietaz? Eta higieena izaki gauza oinarritzkoena osasun

kolektiboa lortzeko. Zaintzaileak ere igualtsu. Aspaldi salatzen ari ziren batzuk eta bertzeak murrizketak egiten ari zirela, eta pribatizazioak ere bai. Inork dudarik ote zuen zein inportantea den sare publiko horiek izatea eta horiei kontzeko zerga politika zuzenak aplikatzea?

Ez dakit nola egonen ote garen artikulu hau aldizkarian argitaratzen den egunean; nola ote diren bertze lurralde batzuetan, birusak han ere jo baldin badu hemen bezain zakar. Txinan ez bezala, hemen ez dituzte oraindik geldiarazi fabrika gehienak, eta birusaren kutsua hedatzeko ate bat zabal-zabalik uzten dute horrela.

Hau pasatzen denean, ondorioak atera beharko ditugu: nola gestionatu den krisi hau, nola bizitu dugun, nola eragin digun (buruan, bihotzean, sakelan). Erne egon beharko dugu agintariak zer erabaki hartzen duten etorririko den krisi ekonomikoaren aitzakiarekin. Ez harritu aprobetxatu nahi badute lehendik aunitz duten gutti horien mesederako eta gehien falta duten gainerako kalterako.

Alarma egoera hau, bertzela ere, aukera ezin hobea izaten ahal da gutako bakoitzaren baitan argi gorri bat bizteko, pentsatzen hasteko: eramaki dugun bizimoduaz; elkar zaindu eta laguntzeko antolamenduaz; mundua gobernatzen dutenek, planeta hondatzen ari diren bitartean, plantatu nahi diguten martxaz...



MAIALEN BELARRA ENETERREAGA

Lehentasunak

Hilabete erdia daramagu etxean. Asteotan nahikoa hausnartu eta eztabaidatu dugu egoera honek ekarri digunaz; ilunaren argiez edo argiaren ilunez.

Asko oroitzen naiz egun hauetan bakarrik bizi den adineko jendeaz; etxean bere erasotzailearekin itxita egon behar duten emakumez; karteletan inolako bisitarik gabe gelditu diren presoek; etxerik ez dutenez; eta baita Zaldibarren bi familia-kide, lagun edo lankide galdu dituztenez ere. Baina gai horiek erabat baztertu gabe, gure gizartearen baloreetan jarri nahiko nuke oraingoan diana. Guretzat zerk daukan garrantzia eta zerk ez.

Urruti ikusten genuen arriskua, klima-aldaketaren ondorio lazgarriak urruti ikusten ditugun bezala. Eta norberari eragiten ez dion arte, ez dugu arazoa serio hartzen. Axola zaigu, baina tira. Gure bizitzarekin jarraitzeko modua baldin badugu, hor konpon. Baina birusa ispiluaren aurrean jarri zaigun unean, histeria dator. Hori bai, sistema osoa planteatuta dagoen moduan, gizartea ez dago prest horrelako krisi bati aurre egiteko.

Lehentasunak lehentasun omen dira, eta dirua ere halaxe banatzen dute agintariak. Era honetako pandemia batek etxeko atea zeharkatu digun honetan, zientzialariak behar

**«BADA GARAIA SISTEMA
PUBLIKOAREN
ALDEKO PAUSO
IRMOAK EMATEKO»**

ditugula ohartu gara; osasungintzako langile eta baliabide egokiak; garbitzaile prestuak... Tamalez, alor horietan hutsuneak daude, orain arte ez baitira gobernuetat lehentasun izan. Pribatizatzearen alde

jo eta ke dabiltzan horiek milioiak gastatu dituzte Espainiako armada eta molde guztietako polizia-indarrak hornitzeko. Baina etsaia birus formatuan etorri denean, kaosa. Bada garaia sistema publikoaren aldeko pauso irmoak emateko; txaloek laguntzen dute, baina ez dute birusa desagerraraziko.

Halere, dena ez da kritika izango. Egun ilun hauek argitik ere aunitz izan dute. Izugarri gozatzen ari naiz etxekoekin eguneroko une ttikietan. Ilobarekin ahaztuta nituen fantasiaren mugak ukitu ditut berriz ere, eta aspaldi egin gabeko barre algarak egin ditut. Lagunek bidalitako bideoek ere lagundu dute horretan. Zenbat abesti entzun ditugun, zenbat poema irakurri, zenbat liburu... Egoera honek kulturak arnas pixka bat hartzeko balio badu, gaitz erdi! Ea hain gutti balioztatzen ditugun irakasgai artistiko horiek ere babesten hasten garen.

Eta nola ez, ea hemendik aurrera norberaren individualismotik atera eta benetako elkartasunean eta sozialismoan inbertitzen hasten garen. Ea garrantzia duten gauzetan inbertitzen hasten garen. Ea honek ikasteko balio digun eta ez diren hausnarketa hauek guztiak birusarekin batera ezabatzen.

11 GALDERA LABUR

OLATZ JORAJURIA OTXANDORENA

«Urteurrena ospatzeko prestatu dugun emanaldia berezia da»

Aurkeztu zure burua.

Hurbilekoen konpainiaz izugarri disfrutatzen duen 30 urteko neska.

Noiz hasi zinen Erreka dantza taldean?

Taldea orain dela hamar urte sortu bazen ere, gehienak tikitatik aritu gara dantzan. Hasieran adinaren arabera banatutako taldeak izaten ziren. Orain dela 10 urte adin bakoitzetik segitu nahi genuen horiek elkartu eta Erreka Dantza Taldea sortu genuen.

Nondik heldu zaizu dantzarako zaletasuna?

Lau urterekin hasi nintzen dantzan eta poliki-poliki gure artean sortu dugun giro onak eraman dit bertan jarraitzera. **Zenbat zaudete dantza taldean?**

18 bat dantzari gaude orain orain. Gure entsaioak, larunbat goizetan izaten dira, baina emanaldiak hurbildu ahala asteen bi entsaio egiten ditugu.

Nolakoa da zuen arteko giroa?

Asteburu askotan, dantza taldekoek bertze edozeinekin baina denbora gehiago pasatzen dugu elkarrekin; horregatik elkar aguantatzea bertze erremediorik ez dugu! (irriz). Gure arteko giroa bikaina da! **Aurten hamargarren urteurrena duzue... Nolakoa bilakaera izan du taldeak?**

Urte hauetan herriko musikari, fanfarre, abesbatza... baita herrikoak ez diren bertze talde batzuekin ere dantzatzeko aukera izan dugu.



Urteurrenerako emanaldia prestatu duzue...

Berezia izanen da, batez ere, dantzari askok parte hartuko dugulako bertan: dantza taldea dagoeneko utzi duten batzuk, oraindik jarraitzen dugunok, gibeletik heldu diren dantzariak...

Zer herri da bereziena zuretzat?

Herri bereziena Eratsun. Gutti aski falta izaten dute bertakoek gurekin batera dantzan hasteko!

Dantzarik gabeko asteburu batean...

Zer egiten du jendeak larunbat goiz batean? Nik behintzat ez nuke jakinen zer egin!

Dantza saio baten ondotik...

Dantza taldekoen konpainiarekin afari goxo batean biltzea, trikitixa eta euskal kantak kantatuz.

Amets bat?

Bertze behin ere, nire familia-ko txistulariaren laguntzarekin, auresku bat dantzatzea.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe-estalkien bilduma berria eta ugaria



IRAKURLEAK MINTZO

Txalo bero bat Menniko eta adineko egoitzetako langileentzat

PEPI OLAETXEA ETA FAMILIA | BERA

Ez dira egun errazak izaten ari inorentzat. Gizarte osoa, salbuespenik gabe, kolpatu du koronabirusak. Aitzinetik ezagutu gabeko egoera bizi dugu. Gure eguneroko bizimodua arrunt mugatu du pandemiak. Eta egoera zail horretan, ehunka langile euren osasuna arriskuan paratu behar izan dute, bertzeen alde lan egiteko. Osasun zerbitzuak, jende aitzineko lana duten langileak, zaintzaz arduratzen direnak... Eta horietatik, bereziki gogora ekarri nahi ditugu adinekoen egoitzetako langileak, adineko pertsonak baitira koronabirusaren aitzinean arriskurik handiena dutenak.

Aste batzuetan ezin izanen dugu Juan Enrique gure senarra, gure aita bisitatu. Gogorra da denontzako. Baina lasai gaude, badakigulako esku onetan dagoela, egoitzako gainerakoak bezala. Eguneroko lanaren gogortasuna hurbitetik ezagutu dugu, eta, hala ere, ez dugu faltan bota zuen profesionaltasuna, goxotasuna eta mimoa. Eta ez dugu zalantzarik, egunotan, denontzat hain bereziak diren egunotan, ez zaiola falta goxotasunik, maitasunik, ferekarik. Bihoakizue, beraz, txalo bero bat Elizondoko Menniko langile guztiei, eta zuek bezala gainerako adineko egoitzetan lanean zaudeten guztiei. Eskertuta gaude.

Berrogeialdia eta...

MIKEL ILLARREGI | LEITZA

Lagun batek gure taldeetako batean egoera honen inguruan eginiko irakur-

keta labor baina egokia denari (ekonomiaren eredu, elikagaien subiranotasuna, naturaren zaintza, gizakien harremanak, ... -aipamenak soilik-), hausnarketarako baliagarri izan daitezkeen lerro batzuk gehitu nahi izan dizkiot:

Arrazoi osoa. Geure bizitzan maiz '0' puntua bilatzen aritzen gara, berritik nola hasi, alegia. Oker egindakoa aprobetxatuz, zuzentzeko bidea asmatu eta jarraitzeko asmoa bideratu. Ba, horixe, honetan guztian, bere txar horretan, egoki ez zen guztia aldatzeko baliagarria izan dadin nolabaiteko aukera ikusten dut honen inguruan informazioa eta 'morboa' eskaintzen eta barneratzen dudana bitartean. Ze aldaketa espero ditut? Gaitz edota egoera hau zerk eragin duen jakin ondoren, halako besterik inon ez sortzea, ez sortaraztea, berriro ere; mundu honetan bizi garen guztiok, egoera berdintsuak sortuko balira, denok, eta DENOK maiuskulaz errepikatzen dut, artatzeko eskubide izatea; zeru aldera begiratu aire beraren kolorea ikustea; goizeko egunkaria edo irratsaioko informatiboak adituzerakoan, biolentzia matxistaren ondorio lazgarriak ez entzun edota irakurtzea; etxe bakoitzaren barnean sortzen diren egoera jasanezinak desagerraraztea; ekidin ezinak direla erakusten dizkiguten lan istripuak edota heriotzak ez gertatzeko bideak ezartzea; preso guztiak dagozkien eskubideak aintzat hartuz etxerako bidean jartzea; munduko pertsona guztiak eskubide berak izateko bidean (lehen osasun mailakoak aipatu ditut, baina eskubide ekonomikoak, pentsamendu eta kulturalak aipatu nahi nituzke beste

askoren artean) baliabideak martxan jartzea; botere aldetik herri gisa ditugun ezaugarriak onartzeko ahalmena gartzea; planeta honetako edozein tokitan bizi delarik ere, gosez ez hiltzea...

Luze jarrai daiteke Lur planeta honetan dagoen egoera aztertzen, eta jada diot, ezinezkoa erabat betetzea, baina horregatik ez utzi alde batera asmo izatea. Baina, egoera hau guztia igaro ondoren, MUNDU (maiuskulaz) justuago baten alde jartzeko aukera izanen dugula sinetsi nahi dut eta hori, denok gure aletxo jarrita, gerta daiteke. Bitartean, pentsa dezagun nola egin...

Hara, Covid-19ak sortaraziko ametsa izan ote da hau guztia? Agian bai, baina amesten jarraituko dut...

BOTA BERTSOA

JOSU
TXOPERENA IRIBARREN
LESAKAKO BERTSOLARIA



Udaberria

Doinua: Martxa baten lehen notak

*Haritz adarrek ekarri dute
garaiko hosto berria
eguzki berri batek bezala
leihotara energia
konfinamenduak elkartu du
etxe baten atzerria
baina guztia ezta berri on
ezta soilik alegria
birusak ederki kolpatu du
Mundua, Euskal Herria
baina gogorrena pasa dugu
ezta falta ezer ia
nahiz ta enaizen zientzialaria
zerbait badut igerria
garai txar hauek on bihurtzeko
heldu da udaberria.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

@ info@ttipi.eus

948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

JATEKO GOGOIA ALA *JATEKO GOGOAK?

Literatura-tradizioan gogo hitza —'nahi, desira edo asmo' adieran— singularrean edo mugagabea (partitiboan) erabili izan da beti. *Jateko, edateko gogoa. Pagatzeko gogoa baduzu. Ez du lanerako gogorik.* Gaur egun, ordea, erdararen eraginez, pluralera jotzen da maiz eta ez da egokia:

- * Hori egiteko gogoekin nago > Hori egiteko gogoarekin nago.
- * Jendea gogoekin gelditu da > Jendea gogoarekin gelditu da, Jendea gogoz gelditu da, Jendea gogotsu gelditu da.
- * Lanean hasteko gogoak daukat > Lanean hasteko gogoa daukat, Lanean hasteko gogo(z) naiz, desiraz nago.

Bertze izen batzuekin ere, gaztelaniaz plurala erabili ohi den hainbat kasutan, erabilera okerra egiten da. Hona hemen adibide bat 'esperantza' hitzarekin. 'Esperantza'k ere euskaraz singularra berezkoa du.

- *Banituen esperantzak > Banuen esperantza

* Izartxoaren dutenak eta arrosa kolorez daudenak gaizki daude.

Nola erran?

udal ≠ udaletxe ≠ udalerrri

Bata bertzearekin nahasten dira maiz, baina argi izan behar dugu bakoitzak bere erranahia duela.

- *Udala* udalerrria gobernatzeko eta kudeatzeko erakundea da. Berako Udala, Eratsungo Udala, Saldiasko Udala, Bertizaranako Udala, Baztango Udala...
- *Udaletxea* edo *herriko etxea* udal-administrazioaren zerbitzuak eta bulegoak dauden eraikina edo etxea da.
- *Udalerrria*, berriz, udalak administratzen duen barrutia da (lurra, herritarrak eta antolakuntza).

Horrela, bada, adibide hauek desegokiak dira:

- **Udaletxeak erabaki bat hartu du.*
> **Udalak erabaki bat hartu du.**
- **Udalera joan behar da papera biltzera.*
> **Udaletxera edo herriko etxera joan behar da papera biltzera.**


Bertzetik, aunitzetan erabiltzen diren *udalbatza* eta *udalbatzar* ere bi gauza dira:

- *Udalbatza*: alkateak eta zinegotziak osatutako agintea da, udal-korporazioa.
- *Udalbatzarra*: alkateak eta zinegotziak egiten duten batzarra da bigarrena.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Zein da zuzena?

'Noski baietz!' ala 'Bai, noski!'

'Noski baietz', 'Noski ezetz', 'Noski etorriko dela'... Ahozkoan aunitzetan aditzen baditugu ere, ez dira zuzenak:

*Noski baietz!

> Bai, noski!
Horixe baietz!

*Noski ezetz

> Horixe ezetz!

*Noski etorriko dela

> Jakina / Horixe etorriko dela!
Etorriko da. Bai horixe!

Unibertsitatean ere euskaraz ikasi nahi dute

Euskaraz ikasteko eskubidearen aldeko aldarria ez da oraingoa Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Baina oraindik eskaera egia bihurtu ez denez, lanean segitzen du NUPEko Euskara Taldeak. Aunitz dira talde horretako kide diren eskualdeko ikasleak

G. PIKABEA

Euskaraz ikasteko eskubidea. Horixe, ez gehiago, ez guttiago. Ez dute bertzerik eskatzen Amaiak, Itziarrek, Mattinek, Janirek, Oihanek, Iraiak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) ari diren bertze hainbat eta hainbat ikasle. Horretarako nahiko arrazoi badirela diote, bertzeak bertze, euskaraz ikasi eta irakatsi nahi duten ikasle eta irakasle eskaldunak badirelako eta unibertsitatearen estatutuek «euskara gaztelaniaren pareko hizkuntza» gisa aitortzen dutelako.


Aspaldikoa da euskarazko ikasketen aldeko aldarria NUP-en. Hori du helburu duela hamar bat urte sortu zen Euskara Taldeak. Hala ere, Iraia Jaurena Etxart taldeko kide urdazubiarrakontatu digenez, «beti egon da presente euskararen gaia bertze talde batzuen barnean». Euskara Taldeak duela urte batzuk «indar handia» hartu omen zuen, «batez ere euskararen egoera aintzez okerragoa zenean». Gerora, ordea, «ikasgai batzuk euskaraz lortzen hasitakoan, jendea erlaxatu» zelakoan dago, «baina azken aldian, berriz ere gaia indarra hartzen ari da».

Euskaldunak goiti

Euskaraz ikasteko eskubiderik izan ez, eta «ingelesaren azpitik, euskara hirugarren mailan kokatua» izatea «onartezina» iruditzen zaie Euskara Taldekoiei. Jaurenaren hitzetan, «murrizta» da gaur egun euskaraz unibertsitate publikoan duen tokia. Aitzitik, «urtetik urtera gero eta ikasle gehiagok

dakite euskaraz, eta maila ere geroz eta handiagoa da, nahiz eta kanpoan ez den aditzen». Gehiago ere bai: «irakasle eskaldunak ere badaude, baina ez dira ikasgai berriak euskaraz eskaintzen». Unibertsitatean egindako inkesta soziolinguis-

tikoa ere ekarri du urdazubiarrak gogora. Horren arabera, «gaur egun, ikasleen %45,8 euskara ulertzeko gai da, eta horietatik %68,32k, hau da, unibertsitateko ikasle guztien %31,29k euskara ongi menperatzen du».



NUPEko Euskara Taldeak euskararen aldeko hainbat hitzordu egiten ditu.

Lautik bat ere ez euskaraz

Ikasturte honetan, 1.506 kreditu eskaini dituzte euskaraz NUP-en, «graduaren %23a guti goiti-beheiti». Gradu batetik bertzera, ordea, «alde handia» dagoela baieztatu digu Euskara Taldeko kideak: «Gaur egun, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduak bakarrik egiten ahal dira osorik euskaraz, aurten paratu duten gradu bikoitzarekin batera». Bertze graduetan «egoera bertzelakoa» dela azaldu du: «Ingeniaritza batzuetan eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduak euskaraz ikasgaiak lehenbiziko urteetan eskaintzen dituzte, baina erizaintza ikasketetan, adibidez, gradu osoan hiru ikasgai bertzerik ez dituzte euskaraz».

Osasun Fakultatea, 'berezia'

Osasun Fakultatean gertatzen dena «kasu berezia» dela uste du Jaurenak: «ikasleen erdia baino gehiago euskaldunak izanik, arras ikasgai guti dituzte euskaraz, nahiz eta irakasle eskaintza ere egon badagoen».

Egoera horri buelta eman nahian, fakultate horretan hainbat aldiz egin dituzte sinadura bilketak. Joan den otsailan egin zuten azkena eta Jaurenak «balorazio positiboa» egin du: «150 bat sinadura lortu genituen aste batean». Horietatik 120k euskaraz ikasi nahiko luketela adierazi zuten.

Sinadura bilketaz gain, unibertsitatean euskararen presentzia areagotzeko bertzelako ekimenak ere egin eta egin dituzte: «ikasle eskaldunak identifikatzen saiatu gara, irakasleekin harremanetan jarri gara, errektoretzako arduradunekin mintzatu gara... Baina aurrerapausoak aski motel doaz».

Errektorearen gibelatik

2019ko ekainean hartu zuen kargua Ramon Gonzalo NUP-eko egungo errektoreak. Jaurenak ez dio «euskararen kontrako jarrerarik sumatu», bai-

na «bere kabuz euskararengatik deus ez du egiten», gaineratu du: «beti gibeletik eskaka aritu behar izan dugu. Irakasleek beren burua euskarazko ikasgaiak emateko proposatuta eta ikasleek haien egoera azalduta egin dira azken urte honetako aurrerapausoak».

Euskara Plana ere badute NUPen. «Euskararen Plan gidaria 2017 eta 2019 urteetarako proposatu zuten, urte horietan euskararen inguruan bete beharreko helburuak finkatuz. Kredituen igoerari dagokionez, helburua ez da gradu guztietan bete, baina bertze arlo batzuetan, itzulpengintzan edo Ikerlari kongresua egitean, euskararen presentzia handitu da».

Aitzinera begira

Kontuak kontu, argi dute bidea: «lanean segituko dugu, errektoretzarekin harremanetan, Euskararen Plan Estrategikoan parte hartzen, Nafarroako Gobernuarekin eta behar den guztiekin lanean». Koronabirusa tarteko, Unibertsitatean Euskaraz Orain dinamika eta apirilaren 2an egitekoa zuten manifestazioa gibelatu badituzte ere, euskaraz ikastearen aldeko eskaerari eutsiko diote.

Hori lortzeko bidean, ikasleek ere zer errana badutela uste du urdazubiarrak eta horregatik eskatu die «euskararen egoeraz jabetzeko eta haien aldetik ahal duten guztia egiteko». Azaldu duenez, «aunitzetan, graduko urteetan hizkuntza batetik bertzerako aldaketa zaila izaten dela argudiatuz, ikasle euskaldunek lehenbizitik ikasgaiak gaztelan hartzen dituzte euskaraz aukera izanik ere». Bere irudiko hori ez da bidea: «jokabide horrekin euskarazko eskaintza murriztea eta ikasgaiak euskaraz ateratzeko zailtasuna handitu bertzerik ez da egiten». Horrekin batera, «euskara erabiltzeko» deia luzatu du, «unibertsitatean euskara sustatzea ikasle guztien betebeharra» dela sinetsita dagoelako.



AMAIA ARRAZTOA ALEMAN
IRURITA, 1998

«Lotsagarria da euskarak duen tokia»

«Lotsagarria» iruditzen zaio Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduan «ikasurte oso bat euskaraz egiteko aukerarik ez izatea»: «Lehendabiziko urtean ia ikasgai guztiak euskaraz egin daitezke, bigarrenean erdiak, hirugarrenean bakarra eta laugarrenean gradu amaierako lana eta hautazkoak aukeratzen dira eta bietan euskarazko eskaintza bakarra da». Berak «gradu guztia euskaraz egin» nahi luke, «eta horrez gain, gradu amaierako lanen euskarazko gaien eskaintza zabalagoa izatea» aldarrikatu du.



JANIRE ETXEGIA APEZETXEA
GOIZUETA, 2001

«Bertako hizkuntza bat baliogabetzen ari dira»

Ingeniaritza Biomedikoa graduan ari da eta «amorrua» sentitzen du euskarak duen tokiagatik: «Nafarroako unibertsitatea izanda, euskaraz diren ikasgaiak kredituen %20a baino pisu handiagoa beharko lukete». Areago, «ikasgaiak euskaraz emateko irakasle euskaldunak badirela eta taldea ateratzeko gutxieneko ikasle kopurua badela» dio. «NUPen ikasgaiak euskaraz eskaintzeari baino garrantzi gehiago ematen diote ingelesez eskaintzeari, kontuan izan gabe, bertako hizkuntza bat baliogabetzen ari direla».



ITZIAR AGIRRE SAGASETA
DONAMARIA, 2001

«Irakasle eta ikasle euskaldun aunitz gara»

Hutsaren hurrengoa da Zientziak graduan euskarak duen tokia: «gradu berria da eta ez dute ikasgai bat bera ere euskaraz eskaini». Hori «arrunt gaizki» iruditzen zaio, «irakasle eta ikasle euskaldun dezentegarekako ikasketak euskaraz egiteko prest». Bere hitzetan, «ez dute kontuan hartzen euskaldunak ttikitatik dena euskaraz egiteko gradu bat bertze hizkuntza batean ikastera pasatzen garela, eta ez dela erraza». Hortaz, «gradu guztietan eta oro har unibertsitatean, euskararen presentzia handitzea» galdegin du.



OIHANE IRIARTE ELIZAINZIN
ARIZKUN, 2001

«Euskaldunak kontuan izatea nahi dugu»

Bioteknologia ikasten dihardu eta «oraingoz, kreditu bakar bate ere ez da euskaraz eskaintzen». Gradu berria da eta «hori omen da ikasgaiak gaztelan bakarrik eskaintzearen arrazoia. Hala ere, heldu den urteari begira ingelesezko ikasgairen bat paratu nahi dutela aditu dugu». Baina berak «graduan ikasle euskaldunak badirela kontuan hartzea» eskatzen du, eta «ikasgaiak euskaraz ere eskaintzen hastea» nahi du. «Zenbait irakasle ikasgaiak euskaraz emateko prest daude, baina ez dago soilik beraien esku».



MATTIN LOPEZ TAPIA
LESAKA, 2001

«Inpotentzia sentitzen dut egoera ikusita»

«Gradu berria ez bada ere, euskarak ez du toki handirik erizaintzako graduan; gradu osoan hiru ikasgai soilik dira euskaraz». Egoera horretan, «inpotentzia» sentitzen du eta aldi berean, «lotsagarria» dela dio: «ikasleen ia erdiak euskarazko ikasgaiak hautatu ditugu eta ez dut ulertzen nola ez dituzten euskarazko gehiago paratzen». «Osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea» ere aldarrikatu du, eta «horretarako euskaraz ikasi behar genuke». Bide horretan, «unibertsitateak euskararen aldeko apustua egitea» eskatu du.



IRAIJA JAURENA ETXART
URDAZUBI, 1999

«Euskaraz hain guti eskaintzea pena da»

Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako graduan «lau ikasgai bakarrik ditugu euskaraz» eta «pena» du «orain arteko euskaraz egin eta gero, unibertsitatean hain aukera guti» dituelako. «Ulertzen dut gure graduan guti izanik dena euskaraz ikastea zaila dela, baina eskubidea badugu eta ikasgai batzuk euskaraz egiteko baliabideak badira». Institututik unibertsitateerako aldaketa «hain gogorra ez izateko» lehen urteko ikasgai «guztiak» euskaraz nahi lituzke, eta «oro har graduetak eskaintza handitzea» nahi luke.

«Drogekin bizitzen ikasi beharra dagoenez heziketa da gakoa»

ARANTXA GAMIO IGOA BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUETAKO GIZARTE HEZITZAILEA

Gazteen arteko substantzien kontsumoa eta gazteek gai horren inguruan duten jarrera izan ditu hizpide Bortzirietako gizarte hezitzaileak TTIPI-TTAPArenkin

G. PIKABEA

Gazteen arteko substantzien kontsumoa «kezkatzeko eta kontuan hartzeko lan ildo» iruditzen zaio Arantxa Gamio Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako gizarte hezitzaileari. Gai horren inguruan «egiteko aunitz» dagoela uste du, eta «Bortzirietan eta oro har eskualdean, gizarte zerbitzuetatik substantzien kontsumoaren prebentzioa guti landu» dela dio. Egoera hori irauli nahian dabilta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, «gazteen kontsumoaren inguruko jarreran eragiteko asmoz», tailerrak, kanpainak eta bertzelako sentsibilizazio eta informazio ekintzak garatuz. Egingako lanetik ondorioztatu dute «prebentzioa eta ohitura osasungarriak sustatzeko heziketa eta sentsibilizazioa indartu behar direla».

Zer kontsumitzen dute gazteek?

14 eta 18 urteko gazteen artean Nafarroan egindako azken *Estudes* inkestaren arabera, Nafarroako gazteen artean alkoholaren kontsumoa altua da. Hamar ikasletik zazpik modu erregularrean eta hamarretik lauk modu intentsiboan kontsumitzen dute eta gazteriaren arazo nagusi izaten segitzen du, tabakotik eta kalamutik urrun. Baina 2006tik hiru substantzia horien kontsumo erregularrak beheiti egin du. Kontsumitzen hasteko batez bertzeko adina 14 urte ingurukoa da alkohola eta

tabakoaren kasuan, eta 14,9 urtekoa kalamuaren kasuan. **Alkohola eta tabakoa kontsumitzea normalizat hartua da. Horrek nolako ondorioak izan ditzake haur eta gazteengan?**

Etxeko eta inguruko ttiki eta nerabeentzat inguruko helduok eredu gara: gurasoak, izebasabak, barrideak, herritarrak... Gure ohitura eta moduak imitatzea da beraien ikasteko moduetako bat. Alkoholaren kontsumoa jendartearen arras normalizatua dugu, baita onartua ere. Nerabearoko eta gaztaro lehen etapan, 13-21 urte artean guti goiti-beheiti, garapen bidean diren gorputz eta garunak dira, harremanak

eraikitzen eta aisialdi propioa bilatzen ari direnak eta adin horretan alkohola eta bertzelako edozein substantzia gorputzean sartzeak kalte konponezinak eragin ditzake. Baldintza aunitz izan daitezke eta aunitzetan ondorioak ezin dira aurreikusi edo kontrolatu. Hortaz, adin horretan arriskurik ez izateko kontsumorik ez dute izan behar. Gerora, behin garapen garaia akituta, kontsumitzea erabakiz gero, mannerak zaindu daitezke, kontsumo arduratsua eginez.

Gazteak ondorioen jakitun dira?

Gazteen ikuspegia oraina bizi eta gozatzea da. Etorkizuna urrun gelditzen zaie eta be-


rehalako onura edo plazera lortzea da beraien filosofia, etorkizuneko arriskueta gehiegi pentsatu gabe. Helduagoak garenean, aldiz, urrunago begiratzeko gaitasuna garatua dugu eta hortaz, sarritan, gure erabakiak etorkizuneko eragin edo kalteak aintzat hartuz hartzen ditugu. Aunitzetan, substantzien gaia beldurretik, kontroletik eta isiltasunetik landu da. Nire esku-hartzeetan informazio objektiboa eta kontrastatua ematen saiatzen naiz, beraien jarrera edo erabakiak baldintzatzen saiatu gabe. Aitzitik, argi dut, entzulearen arabera helarazi behar dela mezua, ez baita berdina 13 urteko neska-mutikoekin egotea edo 18 urtekoekin egotea, kontsumitzen hasi direnekin edo substantzia nahasketak egin ohi dituztenekin egotea. **Drogak badira, izan dira eta izanen dira...**

Beraiekin bizitzen ikasi beharra dago. Eta ikuspegia zabalduko nuke. Drogak substantziak dira, baina gero eta indartsuagoa dugu eta gelditzeko etorri den fenomeno ere ez nuke atzenduko: pantailak. Arriskuak gure artean izanen ditugu, batzuetan hurbilago eta bertzeetan urrunago, batzuetan etxean eta bertzeetan karrikan, batzuk legezkoak eta bertzeak legez kanpokoak izanen dira... Muga paratzea ezinezkoa da. Heziketan dago gakoa: erabakiak hartzeko trebatzea, norbanakoa indartzea (autonomia, autoestimua...), presioak gestionatzea (komertziala, lagunen artekoa...), komunikazio ohi-turak izan eta aberastea eta azalpenak informazio kontrastatuarekin abiatzea.

Zer egin dezakete gurasoek?

Kontziente izan eta onartu. Gurasotasuna haurdunalditik hasten den proiektua da, hasieran ilusio, prestaketa eta indar aunitzekin hasten dena eta gerora, ilusioa moteldu, nekea nagusitu eta oztopoak, gatazkak, ezintasunak, motibazio falta orokortua eta za-

Kontsumoa Nafarroako 14 eta 18 urteko gazteen artean



ITURRIA: Estudes inkesta.

SINADURA: Ttipi-Ttapa



Arantxa Gamio adin ttikiko eta familia programako hezitzailea da Bortzirietan eta bertzeak berzte, prebentzioa lantzen du.

lantzak bezalako sentsazio astunagoak gailentzen direna. Seme-alaben nerabegarora akituak ailegatzaren gurasoak ezagutu ditut. Hortaz, bidean, indarrak hartzea garrantzitsua da, laguntza eta orientazioa eskatzea. Horretarako, hezkuntza sistema eta osasun eta gizarte zerbitzuak eskura dauden zerbitzu publikoak dira. Badira baliabide pribatuak edo espezializatuak ere eta hurbildu, galdetu eta saiatu. Maiz, gurasoen ahotik ez dela erraza aditzen dut. Horixe ezetz! Gogorra, nekagarria eta etsigarria izan daiteke, baina guraso izatea erabakitzen denean kontziente izan behar dugu erabaki horrek erpin aunitz izanen dituela eta guztiak ez direla goxoak eta errazak izanen. Hortaz, oreka hasieratik bilatu behar da: mugak, musuak, ondorioak, ardurak, sariak, besarkadak, azalpenak... **Nolako eredu eskaintzen dute gurasoek eta inguruak?**

Inguru sozioekonomikoa eta kulturala beti aldatzen ari da. Gaur egun, jarrera kontsumistak nagusitzen dira, eduki eta erakusteak berebiziko balioa du. Sare sozialetan argitaratzen diren irudiak horren adibide ditugu. Zer erakutsi nahi da? Zer gorde? Horrez gain, fami-

lia egituretan aniztasuna gero eta handiagoa da eta espazio pribatu aunitz daude: norbere mugikorra, norbere logela, kuadrillen lokalak...

Zein dira arrisku-portaerak?

Hona hemen batzuk: legezko eta legez kanpoko substantziak kontsumitzen hastea; denbora librean aisialdirik ez garatzea; bizikleta, motorra edota autoa gidatzean babes neurririk ez hartzea; sexu praktikan, familiako harremanetan edo lagunartean harreman gatazkatsuak eta arriskutsuak eraikitzea; substantziarik gabeko adikzioak (ludopatia, mugikorrak, bideo jokoak...); izaeraren eraikuntzan indarkeria edo bortizkeria erabiltzeko joera, bakardadea, gehiegizko lotsa, adierazteko zailtasunak...; sare sozialak eta espazio birtuala; ikasketetan motibaziorik eza; elikadura ohitura ez osasungarriak; norbere itxura ez onartzea; ardurarik ez izan eta dena erraz lortzea... Nerabearoak ere baditu berezkoak dituen

«KONTSUMOAK KALTE KONPONEZINAK IZAN DITZAKE NERABEENGAN»

ezaugarriak. Hala nola, egoera emozionalaren aldaketa, izaeraren eraikuntza, berehalakotasuna, arriskatzea, probatu nahi izatea...

Gizarte hezitzaile zaren aldetik, zein da zure aholku nagusia?

Aholkuak sailhesten saiatzen naiz. Norberak bere erabakiak har ditzan trebatzen saiatzen naiz, aitzinetik informazioa ulertarazten eta analisia eginarazten, ondotik, ahalik eta erabaki arduratsuen har dezaten.

Islandiako kasua ezaguna da.

Lehen Islandiako gazteak Europan droga gehien kontsumitzen zutenak ziren, orain, berriz, guttien.

Bai, ezaguna dut. Eragile aunitzek parte hartu zuten egitasmoa izan zen eta horixe da emaitza ona lortzeko gakoa: gurasoak, elkarteak, legea, saltzaileak, hezitzaileak... Guztiok norabide bakarrean eta helburu berarekin lan egitea.

Programa horren sustatzaileen arabera, lagunekin karrikan deus egin gabe zenbat eta denbora

«PREBENTZIO NEURRI BERMATUA DA AISIALDIKO ESKAINTZA»

gehiago pasatu, orduan eta kalamu gehiago erretzen dute...

Ez nuke kalamua erretzeko arriskua bakarrik aipatuko. Aspertzen jakitea eta hori gestionatzen trebatzea garrantzitsua da, eta aldi berean, aisialdi aberatsa eta osasungarria eraikitzea ere bai. Hau da, ttikitatik haurrak esperatzera, aspertzera eta baliabide gutirekin konpontzera ohitu behar ditugu. Lorpenak izatean baloratzeke, esfortzuaren balioan trebatzeko eta bide batez, sormena sustatzeko. Bertzetik, aisialdiko eskaintza aberatsa eta eskuragarria izatea ere prebentzio neurri bermatua da, hau da, kirola egiteko aukera izatea, musika, dantza, margotzea... Baina beti neurrian.

Aisialdia arriskutsua da?

Azken hilabeteotan Bortzirietan landu dugun *Familian prebenitu* egitasmoa saio batek aisialdia eta denbora libreaz hausnartzeko gonbidapena egin du, hain zuzen, denbora libre huts aunitz izateak duen arriskuaz ohartarazteko. Aisialdia ez da arriskutsua. Aisialdia norberak bere zaletasun, gustu eta desioen arabera eraikitako denbora libre da; dantza gustuko duenak dantza taldeak bilatuko ditu, bizikleta maite duenak bizikletan ibiltzeko kuadrilla bilatuko du... Ohitura horiek babes neurriak dira, jarduera fisikoa egiteaz gain, lagun taldea, esperientzia eta ezagutza aberasten direlako.

Entitate publikoek gai honetara aski bideratzen dute?

Aski, aski... beti gehiago eskatzen da. Hala ere, gehiago eta aunitz egiteak baino garrantzi handiagoa du elkarrekin egiteak. Bortzirietan, hainbat eragileren arteko elkarlana indartzea dugu erronketako bat. Hainbat aldetatik mezu eta jarrera bera jasotzen delarik eragina handiagoa izan ohi da. Baina ardura ez da familia edo ikastetxeena bakarrik; gizartearena ere bada, komunitatean bizi garelako eta komunitatean ikasten dugulako.

Mendi Maratoi Erdia ez dela aurten egingen erran dute

Apirilaren 19an egitekoa zen hamaseigarren edizioa, baina 2021era gibelatzea erabaki dute Manttalet eta Agerrak

TTIPI-TTAPA

«Covid-19 koronabirusak eragindako pandemia dela eta, osasun-agintarien gomendioei jarraituz eta lasterkarien eta boluntarioen estaldura medikoa ziurtatzeko», apirilaren 19an ospatzekoa zen Berako Mendi Maratoi Erdiaren antolatzaileek, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eta Agerra Mendi Taldeak, lasterketa bertan behera uztea erabaki dute. Aurten ez da lasterketa hau egingen, ez aurreikusitako datan ezta bertze batean ere. «2021ko apirilean berriro an-

tolatuko dugu Berako Mendi Maratoi Erdia», aipatu dute antolatzaileek.

Eskertza

Lerro hauen bitartez aurten zein aitzineko urteetan lasterketa antolatzen lagundu duten boluntario, korrikalari, enpresa, saltoki eta erakundeek emandako laguntza eskertu nahi izan dute oharrean antolatzaileek: «2021ean indar gehiagorekin bueltatuko gara».

Agerrak antolatutako Goizuetarako mendi irteera ere ez dute aurten egingerik izan.

Hamaikako erronka Facebook-en egin du Gure Txokoak

Etxean geratu beharreko egun hauetan erronka luzatu du Gure Txokoak: taldeko edozein jokalariekin hamaikako bat osatzea. Ondotik, bideoa Gure Txokoaren Facebookeko orrian argitaratu behar da jendeak ikusi ahal izateko #GureTxokoaren11koaErronka idatziz.

Euskal Herriko Itzulia ere ez da egingen

Euskal Herriko Itzulia ez da apirilaren 6tik 11ra jokatu. Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak (UCI) eskatu du ez egiteko probarik arrisku tokietan, eta, hala, lasterketa gibelatzea erabaki dute. Apirilaren 8an ez da txirrindularirik izanen Ibardinen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar Etxean material eskean

Kutsadurari aurre hartzeko materiala eskatu dute San Jose egoitzan: maskarak, mantal plastifikatuak, eskularruak, zipriztinen aurkako betaurrekoak... baina batez ere maskarak. Eurekin harremanetan jar daiteke helbide honetan: resibera@laresnavarra.org edo 948 630 104 telefonora deituta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Neurri zorrotzak herriko dendetan

Osasun agintariek agintzen dutena zuzen betez, arraindegi, banketxe, janari-denda eta fruta-dendetan gisa honetako irudiak ikus daitezke asteotan. Gutieneko segurtasun-tarte errespetatzea eta dendan aldi berean egon daitekeen gehieneko bezero kopurua ez gainditzea eskatzen dute.

LABE ZAR
Astelehenerdik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andoni.lasaga@nmail.com

FRANCONIA, S.L.
FRUTAK GUA BARAZKIAK
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

AUZOA GO!
Etkez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzoago.com - T. 948 631 509

MARITX
INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK
BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
T. 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Arcelor lantegia apirilaren 6ra arte guttienez itxia dago

COVID-19arekin kutsatuak egon daitezkeen bederatz langile etxean isolatuta daudela jakin ondotik hartu zuten erabakia

AITOR AROTZENA

Arcelor Mittaleko Lesakako eta Legasako lantegiek atek itxi dituzte martxoaren 25etik apirilaren 6ra arte guttienez. Martxoaren 24an urgentziaz bildu ziren Langileen Batzordea eta zuzendaritza. Koronabirusarengatik kutsatuak egon daitezkeela eta bederatz langile etxean isolatuta daudela jakin ondotik, hartu zuten erabakia, nahiz eta lan-karga nahikoa bazen oraindik.

Langileek zein baldintzatan utziko duten lana zehazteko ere solastatu zuten. Instalazioak itxi behar izan direnez, lan-hitzarmenean ageri denez, egunen %50a oporretatik hartu beharko dute langileek. Horrela jakinarazi zuen zuzendaritzak. Langile Batzordearen ustez, ordea, «oraingoa osasun arazoa da, prebentzio moduan langile batzuk isolatuta daudelako eta gainerako langileak ere halaxe egon beharko lukete». Zuzendaritzak aipatu zuen Nafarroako Gobernuak agindutako protokoloa zuzen bete dutela eta «horren arabera, denbora labur batean kutsatuta egon

daitezkeenekin egoteak ez duela erran nahi kontaktuan egon direnik». Opor-egunak dagoeneko beteak dituzten edo geldialdi guztirako ailegatzan ez zaizkien langileei «oporak, konpentsaileak edo ERTEa aukeran» emanen zaizkiela ere jakinarazi zion zuzendaritzak Langileen Batzordeari. ERTEa izatekotan, «hitzarmenean ageri dena aplikatuko dela ere jakinarazi zuen zuzendaritzak,



Arcelor Mittal lantegia itxita dago asteotan, ez jakin seguru noiz arte. ARTXIBOKOA

daitezkeenekin egoteak ez duela erran nahi kontaktuan egon direnik».

Opor-egunak dagoeneko beteak dituzten edo geldialdi guztirako ailegatzan ez zaizkien langileei «oporak, konpentsaileak edo ERTEa aukeran» emanen zaizkiela ere jakinarazi zion zuzendaritzak Langileen Batzordeari. ERTEa izatekotan, «hitzarmenean ageri dena aplikatuko dela ere jakinarazi zuen zuzendaritzak,

soldata gordinaren %90a ordainduta eta ez ezinbertzeko kasuena». Egoera aldatuko ez balitz, apirilaren 6tik aitzinera nola jokatu ere aztertuko du enpresak.

Langileren batek koronabirusaren sintomak baldin baditu medikuarekin harremanean jartzeko eta isolamendua agintzen badio, medikuaren baja eskatzeko eta enpresari egoeraren berri ematea eskatu dute ELA sindikatutik.

Zubiriari egin behar zitzaion omenaldia gibelatu dute

Joxe Angel Zubiria zenari omenaldia eskaini behar zioten apirilaren 4an. Alarma egoera dela eta, ekitaldi hori ere gibelatu dute. Frontoian egin behar zen bazkarirako txartelak erosi dituztenek, oraindik zehaztu gabe dagoen data berrirako gorde dezakete.

Udal eraikinen garbiketa lanak Amaia Leizak

2020ko apirilaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra udaleraikinen garbiketa lanak Amaia Leiza Arozamenak egingen ditu, 14.000 eurotan (gehi BEZa). Udalak borts enpresari bidali zien gonbidapena baina Leizarena izan zen aurkeztutako proposamen bakarra.

Zahar Etxean lan egiteko eta materiala bidaltzeko deialdia egin dute

Momentu honetan, beharrezko material guztia daukate Zahar Etxean, baina hurrengo asteak zailak izaten ahal direla aurreikusiz, prest egon nahi dute. Egoitzan lan egin nahi duten pertsonak (laguntzaile soziosanitarioa, erizain laguntzailea, adinekoen zaintzan

esperientzia duten pertsonak, garbitasuna, sukaldea...) beraien kurrikuluma bidali behar dute andramari@lesaka.eus helbide elektronikora. Prebenzio material espezifiko eman nahi duenak Herriko Etxera edo Andra Mari egoitzara bertara eraman ditzala.

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

DenakBat
Hemen erabili

kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

ETXALAR

Ez dute ohiko itxura herriko karriek koronabirusarengatik

Urduritasuna, kezka eta tristura dira nagusi etxetik ezin atera dauden herritarren artean

IRUNE ELIZAGOIEN

Koronabirusaren eraginez, Landagain eskola itxita eta ikasleak etxean daude martxoaren 16a geroztik. Ostatuak, udaletxeak eta kultur etxeak ere atekak itxi dituzte. Ekitatiba janari denda goizez bakarrik egonen da zabalik, eta erosleei segurtasun distantziak mantendu eta etxetik erosi beharrekoen zerrenda eginda joateko eskatu diete bezeroei. Okindegiek, Usoa kooperatibak, Lorpenek, farmaziak eta bankuek ere irekita jarraitzen dute. Herritar aunitz ari da etxetik



Plaza eta karriak hutsik ageri dira.

lanean, bertze hainbat oraindik ere egunero lantokira joanez. Argazkian ikusten den irudia errepikatzen da egun joan eta eguna etorri Etxalar-ko plaza inguruan. Ea agudo elkar ikusten dugun!

Liztor asiatiako kabiak hasiak dira agertzen

Udaberriarekin batera, aurtengoan ere, liztor asiatiako kabiak agertzen hasi dira han eta hemen. Ez denez negu hotza izan, ohi baino lehena-go hasiak dira liztorrak lanean. Ea bada ez diren, zenbait urtetan bezala, gailentzen eta erleei erasotzen hasten.



Liztorraren kabia agerian. IRUNE E.



ITSASO ELIZAGOIEN

Juli Elizalde 100 urte bete ditu

Martxoaren 16an 100 urte bete zituen Juli Elizalde. Lore-sorta eta opari aunitz iritsi zitzaizkion etxera. Gaur egungo egoera arraroaren ondorioz, ezin izan zuten lagun, familia eta auzokoekin behar bezala ospatu, baina ziur merezitako ospakizuna iritsiko dela guzia bere onera etortzen denean.



IRUNE ELIZAGOIEN

Udaberri giroaz apaintzeko erronka

Guraso Elkarteak erronka zabaldu du, konfinamendu egunak arintzeko asmoz. Balkoi eta terrazak udaberri giroz apaintzeko deia luzatu diete herritarrei eta argazkiekin bideotxo bat eginen dute. Osasun langileen eginahala eskertuz egunero 20:00etan txalo egitera ateratzen dira.



*lagunarte, familia,
kinto besta...*

OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

Bizitzarako adimen emozionala landuz ikastaroa egin dute

Hogei lagunek parte hartu dute Igantziko Biltokik antolatu eta Donna Apelanizek emandako ikastaroan

TTIPI-TTAPA

Bizitzarako adimen emozionala ikastaroa egin zuten Biltokian. Hogei lagunek parte hartu zuten, Etxalar, Bera, Lesaka, Usurbil eta Igantzikoak. Beraz, gehieneko kopurua bete zen. Donna Apelaniz Nietoren eskutik, 16 orduko formakun-

tza izan zen, lau larunbatetan banatuta. Ikastaroa bukatzeko, ahal izan zuten guztiek bazkari bat egin zuten elkarrekin Biltoki Elkartearen.

Parte hartzaileek, emaleak eta antolatzaileek balorazioa positiboa egin dute. «Talde polita, aberatsa, irekia, gogo-



Ikastaroan parte hartu zutenek elkarrekin bazkaldu zuten. UTZITAKOIA

tsua, parte-hartzailea osatu da», diote.

Igantziko Biltoki elkarteak antolatu du ilbeltzean eta

otsailean burutu den ikastaroa, Caixa Fundazioaren babesarekin eta Igantziko Udalaren laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako V. DiscGolf Openean

Espainiako V DiscGolf Opena jokatu da Oviedon (Asturias). Baxi Basajauna DiscGolf Elkarteako idazkaria eta joan den urtean Nafarroako txapeldun suertatu zen Mikel Ibarrola aritu zen. Irrisarrin Nafarroako lehen DiscGolf eskola ere abiatzekoa zen apirillean, baina aitzinerago beharko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxealdia liburu batekin hobeto

Aste hauetako etxealdia arintzeko ideia izan dute eskolan. Goietxean, Bi-Bideko atarian, liburu betetako kutxa utzi dute, nahi duenak hartzeko. Ez dira eskolara bueltatu behar, eta norbaitek beretzat gorde nahi badu ere egiten ahal du eta bertzela, irakurri eta itzuli. Tarteka liburuak berrituko dituzte.



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN




gaueko konfort-kuxina




 Centro Prim
  regina tolosaechepare



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Adinduei eta beharra dutenei laguntzeko boluntarioak prest

Udalak boluntario sarea osatzeko lanari ekin dio eta bakarrik bizi diren 70 urtetik goitikoei deituko die

NEREA ALZURI

Munduan barna ederki zabaldu da Covid-19 birusa. Azken egunotan, zoritxarrez, gaurkotasuneko gaia bilakatu da. Egoera berria da denontzat eta inguruko herrietan bezalaxe, herriko argazkia ere berdintsua da: karrikak eta herriko xokoak hutsak, inor gabe.

Beharrezkoa ez den kasuan ez bada, etxean gelditzeko neurria indarrean dago, eritasuna kutsagarria denez ez zabaltzeko. Eta hala, udalak, Nafarroako Gobernuaren agindua tarteko, udal eraikin guztiak itxiak ditu: herriko etxea, eskola, frontoia, parkea eta liburutegia itxita egonen dira bertze abisurik hartu bitarte.

Herriko etxea itxita badago ere, udal bulegoetan langile bat egoten da deiak erantzuten. Hala ere, behar-beharrekoak diren eskaerak kontuan hartuko dituela jakinarazi du. Laguntza behar izanez gero, 948 63 40 05era deitu edo udala@arantza.eus e-postara idazten ahal da.

Horrez gain, adinduei eta arrisku egoeran daudenei la-

guntzeko boluntario taldea ere sortu du Udalak «auzolana eta elkarlana garrantzitsuak» direla iritzita. Erosketak egiteko laguntza, botikak ekartzeko laguntza... Kasua edozein dela ere, beharra dutenak badirelako haiei laguntzeko sarea antolatu nahi du eta lerro hauek idazterakoan laguntzeko prest dauden zortzi lagunek emana zuten izena. Atea zabalik dagoenez, norbaitek boluntario lana egin nahiko balu udaletxera deitzeko edo idazteko eskatu du. Laguntza behar dutenek ere udaletxera jo dezakete. Aipatu behar da, udala, gazteen presentziarik gabe bakarrik bizi diren 70 urtetik goitikoei deitzen hasi dela laguntzarik behar duten ala ez jakiteko.

Mendi itzulirik maiatzean ez Koronabirusa dela eta, eskola eta eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera gelditu dira, baita apirilaren 18ko trikitixa jaialdia ere. Ekaitza Elkarteak maiatzean egitekoa zuen mendi itzulia egun horretan ez egitea erabaki du. Aitzinerago egiteko aukera aztertuko du.

ESKUTITZA

SALVADOR MADARIAGA, SECUNDINA BERGARA
ETA EGUZKIALDEKO SIMONENBORDAKO FAMILIA GUZTIA

Eskerrak aunitz, bihotzez

Hiru hilabete eskas pasatu dira baserria erre zitzaigunetik. Ez dugu atzendua urtarrilaren 3a, ezta aise atzenduko ere, ustekabeko suak baserria erre baitzigun. Baina aste hauetan, poliki-poliki, berritze lanetan ari gara. Baserria berriz altxatzeko ilusioa gurekin dugu eta ilusio horrek eta hartu dugun laguntza ikaragarriak horretan laguntzen digu. Hitzak ez ditugu aski hartu dugun elkartasun guztia eskertzeko. Hortaz, lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bertzera lagundu diguzuen guztiei. Bizilagunei eta herritarrei, baita Bortziritetako eta bertze txokoetatik ekonomikoki, babesa erakutsiz edo auzolanean lagundu diguzuen guztiei ere, bihotz-bihotzez eskerrak beroenak. Hunkituta gaude hartu dugun animo eta laguntzarekin. Bide batez, baserria erre zen egunean hurbildu ziren herritar, suhiltzaile, mediku eta erizainei ere eskertu nahi diegu.



AINHOA ALZURI

Ortzadarrak koloreztatu ditu bazterrak

Agudo hiru aste beteko dira etxean konfinatzeko agindua ezarri zutenetik. Egoera berri honetan ere, ortzadarrak margotu ditzala gure bazter ederrak. Itxialdi honetan, etxeko leihotik begira bada ere, gustura hartzen ditugu horrelako irudiak.

LARRETXEĀ EGVRRĀK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketearak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Zalain
JATETXEĀ RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOĀK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

«Badakit Covid-19arekin kutsatzeko aukera handiak ditugula»

AINARA AMOROS GRANER BIDASOA OSPITALEKO ARANTZAKO ERIZAINA

«Momentuz» Bidasoa ospitalean egoera «kontrolatua» dutela dio. «Egoera honetan lan egiteak» ez diola beldurrik ematen aitortu digu «nire burua babesteko baliabideak ematen dizkidaten bitartean»

G. PIKABEA ARANTZA

Bidasoa ospitaleko kirofanoko zerbitzuan egiten du lan Ainara Amoros Graner erizainak, eta asteburu eta gauez urgentzietako zerbitzuan aritzen da. Koronabirusa tarteko, egunero martxa aldatu egin zaio; lanean hainbat neurri hartu behar izan dituzte eta bizitza pertsonalean ere erabakiak hartu behar izan ditu.

Nola ari zarete lanean ospitalean?

Gure ospitalean, momentuz, egoera kontrolatua dago. Bidasoaldean kasu positiboak beranduago agertzen hasi ziren eta bertze lekuekin alderatuz, konfinamendua lehenago hasi ginen betetzen. Ingresatuen kopuruak gora egiten segitzen duen arren, jendeak aginduak betetzen segitzen badu, egoerak gainezka ez egitea espero dut. Dena den, prestatuak gauden datorren asteetan sortzen ahal diren egoerei aitzin egiteko. Programatutako kirurgia ez urgenteak bertan behera utzi dira eta kontsulta gehienak ere bai. Neurri aunitz hartu dira pazienteen joan-etorriak murrizteko, ospitaleko materiala aurrezteko eta behar ez diren ospitaleratzeak ekiditeko. **Zuen burua babesteko baliabiderik eta materialik baduzue?**

Gure burua babestea ezinbertzekoa da egoera honetan. Horretarako hainbat protokolo ditu osasun zerbitzuak baina gure artean egokitu eta elkarri laguntzen ari gara denok ahalik eta hobekien bete



Amorosek lanean neurri aunitz hartu dituztela kontatu digu.

ditzagun. Behar dugun materiala lortu dugu, eta badugu oraindik, baina bukatzeko beldurrez, ahalik eta modu egokienean erabiltzen saiatzen gara, gehiegikerietan gastatu gabe. Momentu puntaletan kanpoko laguntza izan dugu segurtasun materiala lortzeko eta eskertzekoa da.

Osasun arloko profesional gisa, lana gogorra egiten ari zaizu?

Nire lana maite dut eta egoera honetan lan egiteak ez dit beldurrik ematen, nire burua babesteko baliabideak ematen dizkidaten bitartean. Badakit, hala ere, aukera handiak ditugula Covid-19arekin kutsatzeko, hagitz kutsakorra baita. Okerrena familia kutsatzeak ematen didan kezka edo bel-

durra da. Horregatik egun hauetan familiarengandik urrundu naiz eta lanetik kanpo inorekin harreman zuzenik ez izaten saiatzen ari naiz. Gogorra izan arren, espero dut mereziko duela eta aste batzuen buruan berriz denak elkarrekin izanen gara.

Ohiko gripe batek baino heriotza tasa baxuagoa du Covid-19ak...

Nahiz eta heriotza tasa baxuagoa izan, Covid-19a gripearen birusa baino aunitzez kutsa-

«GARRANTZITSUA DA KUTSATZEAK EKIDITEKO ETXEAN GELDITZEA»

korragoa da. Horrek erran nahi du denbora tartelaburragoan jende gehiago kutsatzeko gaitasuna duela eta ingresatzeko beharra duten gaixoen kopurua aste batzuetan izugarri igotzeko arriskua dagoela, osasun zerbitzuak kili-kolo utziz. Horregatik da hain garrantzitsua kutsatzeak ekiditea. Nahiz eta biztanleriaren kopuru handi bati larritasun gehiegirik ez dion eraginean, bertze kopuru handi bati neumonia bat eraginen dio eta osasun arreta berezia beharko du.

Herritarrek kontziente gara egoeraren larritasunaz?

Nik uste gehienak kontziente direla egoera hau hagitz larria dela, edo hori da pentsatu nahi dudana. Aginduak eta gomen dioak betetzen ari gara eta horretan segitu behar dugu. Beti badago guttiengo bat inor baino listoagoa dela pentsatzen duena edo bertzeek baino eskubide gehiago dituela uste duena. Jende horri erranen nioke etxean gelditzeko eta errespetua izateko ingurukoekiko. Errespetua izateko egunak eta egunak etxetik atera gabe dagoen jende horregatik. Errespetua izateko beraien lanagatik norberaren osasuna eta etxekoena arriskuan jartzen ari direnengatik. Denok badugu gogoia lagunekin ateratzeko, mendira joateko, gurasoen etxera bisitan joateko edota parkean jostetan aritzeko. Baina etxean gelditzen gara. **Zuen lana eskertzeko ekimenak ere badira. Zer iruditzen zaizkizu?** Hagitz polita eta zirrargarria da jendearen esker ona sentitzea. Lan izugarria egiten ari den pertsona aunitz dago ospitale eta zentroetan, lan karga handiak eta egoera emozional gogorrak jasaten. Animo guztiak ongi etortzen dira indarrak hartzeko. Baina osasun langileez aparte, badira bertze hainbat langile jende aitzinean ari direnak: dendariak, garraio-lariak, poliziak... Denen ongizatea bermatzeko ari dira eta eurek ere esker ona merezi dute. Eskerrik asko dene!

Etiket irakatsi eta etxean ikasi

Ikasle zein irakasleak, ikasketen jarraipena bermatzeko, buru-belarri ari dira lanean. Batzuek zein berteek etxera eraman dute ikasgela

N. BAZTERRIKA

Momentu batetik bertzeira ikasirakas sistema errotik aldatzea eragin du koronabirusak. Ikastetxe guztietako ateak itxita, etxeak ikasgela bihurtu dituzte eskualdeko ikastetxeetan dabil-tzan 5.535 ikasleek.

Ikasleak eta irakasleak hartu-emanean

Ikasketa prozesua ez eteteko, «alarma egoerak» iraun artean etiket lan egiten ari dira irakasleak. Orain arteko metodologia egokituta, e-posta, Classrooma,

Google Meet edo bertzelako baliabide digitalak erabiltzen ari dira ikasleekin materiala partekatzeko, azalpenak emateko eta lanak eskatzeko. Bide beretik jasotzen dituzte ikasleen lanak «jarraipena bermatu dela egiaztatzeko». Gurasoek ere lanen

jarraipena egin ahal izateko tutoreei idatz diezaiekete.

Haur eskolak ere itxita

Haur eskoletan dauden haurrei eta euren gurasoei ere bete-betean eragin die egoerak. Izan ere, txikiak ere etxean daude.

AURREMATRIKULAZIO KANPAINA ETA ATE IREKIEN EGUNAK ATZERATUTA

Guraso anitz, kasurik onenean, zaintza-lanak eta lanbideari dagozkion egitekoak uztartzen ari dira.

Aurrematrikulazioa kanpaina atzeratuta

Egoera ikusirik, haur eskoletan zein ikastetxeetan aurreikusiak ziren ate irekien egunak eta aurrematrikulazio datak gibelatu egin behar izan dituzte. Egoera bere onera etorri eta eguneroko martxa berrartzen dutenean, epeak jakinaraziko dituztela iragarri dute.

Selektibitatea

Selektibitateak ere ezohiko data izanen du aurten, ikasleek edukiak landu eta barneratzerako orduan aurrez aurreko klaseak eteteak izan dezakeen eragina kontuan hartuta, atzeratzea erabaki baitute.

Ezjakintasunaren aitzinean elkarlana nagusitu da eta, «momentuz» jasotako erantzuna «ona» izan dela gaineratu dute.

IKASLE ZEIN IRAKASLEEK LANEAN SEGITUKO DUTE



Iñaki Beltran bulegoan lanean.

«Lana telematikoki presentzialki bezain ongi egitea zaila da»

IÑAKI BELTRAN

LEKAROK BHI-KO ZUZENDARIA

Egunetik egunera egoerak zer bide hartuko duen jakin ezinik, «ezjakintasuna eta zalantza» sentitzen du Iñaki Beltranek, Lekarozko ikastetxeko zuzendariak eta irakasleak. Egoerari ahalik eta hobekien erantzuteko eta ikasleen beharrak asetzeko «ahal dugun guztia» egiten dutela adierazi du.

«Egunez egun» egokitze beharra

Zuzendaria eta Batxilergoko bigarren mailako irakaslea da Iñaki Beltran. Ardura handiak dira bata zein bertzea, bereziki «ezjakintasun» egoerak ailegatzen direnean. Ageriko egin du sentitzen duen «kezka», bereziki «Batxilerreko bigarren mailan daudenek beraiantzat arras garrantzitsua

den froga bat egin behar dutelako».

Telematikoki «materiala ahalik eta hoberean» emateko lanean ari dira, «jarraipena ez dadin eten». Segida emateko modua izan badela uste duen arren, zenbait azalpen emateko «klaseak ezibertzekoak» direlakoan dago: «gure lana telematikoki presentzialki bezain ongi egitea zaila da».

Zailtasunak zailtasun, irakasleak materiala bidaltzen eta ikasleak jasotzen ari direla gaineratu du: «martxoaren 17an hasi ginen, Classroom bidez batzuk, Google Meet plataformaren bidez berteak, bideoak edota e-mailak bidaliz gainerakoak». Momentuz, ikasleen aldetik «erantzun ona» jaso dutela argitu du. Dena den, iraupenak eragina izanen du: «hasieran ez etortze egoera hau 15 eguneko zen, baina hori aunitz luzatzen bada zailagoa izanen da. Egunez

«JARRAIPENA BERMATZEKO EGINAHALAK EGINEN DITUGU»

egun ikusi beharko dugu nola landu, egokitu, kontua».

Ikasle eta irakasleak ez bezala, zuzendaria ikastetxean dago egunotan: «gaur-gaurkoz, irakasleak telematikoki ariko dira, baina zerbait behar badute bertara etortzen ahalko dira. Administraria, kontserjea, garbitzailea eta ni hemen izanen gara...».

Egoeraren aitzinean «familiei lasaitasuna eta ikasleei lan-ohiturak hartzea eta betetzea» eskatu die: «ordutegien araberako lanak izanen dira, beraz, hori segitzea komeni da, egunez egunekoak betez». Guztien lanarekin «jarraipen ona» izan dadin.



Irati Iriartek eskola ordutegiak «zorrotz betetzea» erabaki du.

«Selektibitateari begira, arriskutsua da etxetik lan egitea»

IRATI IRIARTE ALTZUGARAI
BATXILERGOKO IKASLEA

Aurrez aurreko saioak jasotzetik telematikoki lan egitera pasatzeak eragin zuzena izanen du ikasleen lan egiteko moduan. Bereziki, Batxilerreko bigarren mailako ikasleek «kezka» adierazi dute. Kezka-aren jatorria argia da: selektibitatea.

Berako Toki Ona ikastetxean Batxilerreko bigarren mailako ikasle den Irati Iriarteri egunero martxa bete-betea aldatu dio koronabirusak: «klasean egiten genuen guztia etxean egin beharko dugu datozen asteetan eta aurreikusitako azterketak bertan behera gelditu dira. Horrek ez du azterketak ez direnik eginen erran

nahi. Guztia gibelatu eginen da».

Lan ohiturak aldatzea eta egoera larriak irauan artean azterketarik ez izatea «arriskutsua» da bere ustez. Izan ere «etxean denbora badudala iruditzen zait eta lasaitu egiten naiz. Gehiegi lasaitzeak giblean gelditzea eragiten ahal dit».

Halakorik ez gertatzeko, «eskolako ordutegiarekin segitzea» erabaki du: «irakasleek bidalitako lanak klasean egiten ditugunen tankerakoak dira eta ordutegia horretara egokitzea lagungarri izanen zaidala uste dut...».

Selektibitatea eztabaidagai


Kezkak ez dira horretara lerratzen. Atzotik eraikitzen dugu gaurkoa eta gaurtik biharkoa: «hamabortz egunez etxetik lan eginen dugu eta gero auskalo zer pasatuko den. Selek-

«EZ GIBELATZEKO IKASTETXEKO ORDUTEGIA BETEKO DUT»

tibitatea hor dago, eta hori presente izatea garrantzitsua da, egunotan gogotsu eta atentzioa jarriz lan egiteko giltza izan daiteke».

Jakinarazi dutenez, unibertsitaterako sarbide den froga gibelatzea erabakita dago, baina azteketek ez dute data zehatzik. Horrek ere ondorioak izan ditu. Izan ere, ekaineko bigarren asterako «hartuta genuen ikasbidaia bertan behera utzi» behar izan dute.

Iriartek, pertsonalki, ez luke gehiegi gibelatzea nahi, ikasurte osoan lan egin ondotik, «udan oporrak izan nahi ditudalako».



Marina Argotek etxea lantoki bihurtu du egunotan.

«Metodologia egokitu dugu programazioarekin segitzeko»

MARINA ARGOTE LARRAURI
HAUR HEZKUNTZAN TUTOREA

Marina Argotek, San Migel ikastetxe Haur Hezkuntzako tutoreak, koronabirusak eragindako egoerara egokitzeko aldaketak egin behar izan ditu eguneroko martxan: «programatutako edukiekin segitu ahal izateko, metodologia aldatu dugu eta hori erronka handia da guztiontzat».

Irakasleak etxetik lanean ari dira alarma egoeran dauden bitartean: «09:00etatik 14:00etara ordenagailua erabiltzen dugu komunikatu ahal izateko».

Ezohiko egoera da guztiontzat, bereziki Haur Hezkuntzako ikasleen heziketan lan egiten dutenentzat. Izan ere, «Haur Hezkuntza kontaktua, imitazioa, esperimantazioa,

jolasa eta harremanak oinarritzkoak dira».

Gurasoekin hartu-emanean

«Ordenagailua edota telefonoa» eskuan guraso eta lankideekin «etengabeko komunikazioan» ari dira lanean eta guraso zein tutoreek lan jarraipena egin ahal izateko «Drive eta Classroom plataformak» dituzte eskura.

Irakasleek, programazioan zehaztutako edukiak barneratzen ari direla bermatzeko, «metodologia aldatu» dute: «Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren IKASNOVA plataforma erabiltzen dugu. Maila bakoitzeko tutoreek lana zintzilikatzen dute ikasleek etxetik egin ahal izateko».

Aro digitalak eskaintzen dituen aukerak ustiatzeko eta «baliabide horiek nahikoak ote diren» egiaztatzeko modua izaten ari dira egunotan: «ikasleek egunerokoan teknologia

«LANAK BIDALTZEKO BALIABIDE DIGITALAK ERABILIKO DITUGU»

erabiltzen dute eta irakasleok etengabeko formakuntza jasotzen dugu».

Formakuntzetan ikasitakoa praktikatzeko garaia ailegatu zaie, ustekabea ailegatu gainera: «teknologiazaleak ez garenok asko ikasiko dugu. Egoerari aurre egitea erronka handia izanen da...».

Hastea omen da gakoa. Hasi ondotik ari eta ariz ikasi. Bide horretan lan egiten ari dira ikasle eta irakasleek. Eta, nola ez, «gurasoei, edozein zalan-tza izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko» deia egitearekin batera «egoera luza-tuko dela dirudien pazientzia izateko» eskatu die.



Etiket atera gabe ere, gauero kantuan ari dira herritarrak balkoi eta leihoetatik. MAIDER PETRIRENA

Egoera bereziari aurpegi eta kantu alaia gauero

Etzeko itxialdi garai honetan gauero ateratzen dira herritarrak balkoi, leiho eta atarietara, kantuak abestera

MAIDER PETRIRENA

Koronabirusak eragindako egoera berezi honi aurre egiteko gauero, 21:00etan abesti bat jarri eta argiekin ateratzen dira herritarrak balkoi, terraza, leiho eta atarietara, honela bederen elkarrekin egoteko. Orain arte, ospitalean dauden herritarrek aukeratu dituzte kantuak eta beraien omenez jarri dituzte: martxoaren 23an Jalisko Banden *10 urte egurra ematen* diskoko kalejira, Jalisko beraren omenez; 24an *Baldorba* Jose Luis Otxandorena 'Kontxejo' ren omenez, 25ean Rocio Durcalen *Me gustas*

mucho Ines Ferreraren omenez eta 26an *Sólo se vive una vez*, herria bizirik mantentzen duten komertzio eta ostatuen alde.

Bertan behera utzitakoak

Martxoan eta apirilean egin beharrak ziren ekitaldi guztiak bertan behera utzi dira eta oraingoz ezin da jakin aitzinerago egingen dituzten edo ez: Ariztigain kanpineko VIII. Kantu Zaharren Eguna, Asteburu Kulturala, gazteek sargardotegira prestatua zuten ateraldia... Euskal Herriko Mus txapelketaren finala gi-

belatu dute eta, hortaz, herriko bikoteak, Joxe Mari Arretxeak eta Jose Martin Agirrek musean jostatzeko aukera izanen dute aitzinerago.

Horrez gain frontoia eta parkea itxita daude, baita eskolak ere. Eskolako ikasleak beraien lanak telematikoki egiten ari dira.

Udaletxean lanean

Udaletxean lanean ari dira, baina badaude zenbait tramite momentu honetan ezin direnak egin, bake epaitegikoak direnak, erraterako. Gainera, legezko epeak momentuz bertan behera gelditu dira. Telefonoz eta posta elektronikoz edo egoitza elektronikoko bidez kontaktatu daiteke (deiak Amets Inda alkatearen mugikorrera desbideratuak daude eta etzeko ordenagailutik Udaletxekora konektatzen da). Idazkaria eta albintea ere etiketik ari dira eta kanpora ezinbertzekoak diren gauzak egitera bakarrik ateratzen dira.

Turismoaren sektorea ere kinka larrian utzi du koronabirusak

TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren osasun-krisiak sektore guztiak ukituko dituela nabarmena da. Horieta bat turismoarena da. Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargotik jakinarazi dutenez, «Aste Santurako dena anulatua dago, jatetxeak eta aktibitate enpresak itxita». Baina epe laburrera ez ezik, epe luzean ere sumatuko dutela dio Patxiku Irisarri, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko presidentea: «Sektore guztietan narbituko da, baina jendeak gerrikoa estutu behar badu, guretik hasiko da. Landetxe edo hotel batean astebete egin ordez asteburua egingen dute, egiten badute; eta jatetxean bazkaria enkargatu beharrean, piknik-a mendian edo barbakoa bat egingen dute etxean». Hori Gaiakoborda bere landetxean ere sumatzen hasia da: «abuzturako erreserbaren bat ere bertan behera utzi dute dagoeneko. Autonomia da eta ez daki orduan egoera nola egonen den...». Etorkizunera begira, turismoaren sektoreak ere laguntza beharko duela dio Irisarri: «Garai batean, Nafarroako Gobernuak *Nafarroa te recibe gratis* kanpaina sustatu zuen eta horrelakoak eta gehiago beharko ditugu».

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Igogailuen instalazioak.
Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com



Turismo Elkargoko Patxiku Irisarri.

Bertsolaritza ikastetxeetan lantzen segitzeko hitzarmena berritua

Urteetako lankidetzari jarraipena ematea adostu dute Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Nafarroako Gobernuak



Gil Sevillano, Carlos Gimeno eta Ander Perez, hitzarmena sinatuta. UTZITAKOA

TTIPI-TTAPA

1986tik dago martxan *Bertsolaritza Irakaskuntzan* programa Nafarroan, herrialdeko ikastetxeetan bertsolaritzaren oinarriko edukiak lantzea helburu duen egitasmoa. Nafarroako Bertsozale Elkarteak eskaintzen du, bere bertsolari eta irakasle espezialisten bitartez, Nafarroako Gobernuak (hainbat udal eta mankomunitatez gain) diruz lagunduta. Lankidetzari horri jarraipena ematea adostu berri dute Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak, kontratu berria sinatuta. Sinadura-ekitaldian izan ziren Carlos Gimeno Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilaria eta Gil Sevillano Hezkuntza Zuzendari Nagusia, baita Ander Perez, Nafarroako Bertsozale Elkarreko koordinatzailea ere.

58 ikastetxetan

Kontratu berriaren arabera, 2020. urtean Nafarroako 58 ikastetxetan izanen da programa; hain zuzen ere, egitasmoa gutxienez 125 ikastaldetan lantzeko konpromisoa hartu du Nafarroako Bertsozale Elkarteak, guttienez 11 ikastorduko programatan. Modu horretan, Nafarroako D ereduetako ikastetxe gehienetan (eta B ereduko gutxi batzuetan) izanen da presente bertsolaritza, urteetako esperientzia duen eta frogatutako emaitzak eman dituen egitasmoaren bitartez.

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

<p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Intzakardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>	<p>%10 DESKONTUA arropa guztietan</p> <p>Ameztiá DONEZTEBE T. 948 45 16 70</p>	<p>10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigurutz, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan</p> <p>%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Ameztiá DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA Skeyndor Eternal kremetan</p> <p>Eliza, 18 behea DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>
<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behea DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Ameztiá, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>
<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 01 13</p>	<p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuan</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA esketetan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>

Ezarritako neurriak zorrotz betetzen ari dira zerbitzuetan

Udal bulegoak publikoari itxita badaude ere, langileak lanean dihardute eta bertze hainbat lan ere egiten ari dira

MARGA ERDOZAIN

Apirilerako aurreikusitako ekitaldi, ekimen, ikastaro, kirol jarduerak... bertan behera gelditu dira.

Udal Zerbitzuei dagokionez azpimarratu behar da udal-txeara itxia egon arren, hainbat lan burutzen ari direla: karririk desinfektatu eta garbitu, ikastetxeetan konpontze eta mantentze-lanak egin, liburutegiko digitalizazioa egin... Udal bulegoak publikoari itxita badaude ere, langileak lanean dihardute (ezarritako neurriak zorrotz betez). Edozein kudeaketa edo informazioa behar izanez gero 948 450017 telefonora deitzen ahal da. Askin Haur Eskolarako izen ematea atzeratu da egoera bere onera itzuli arte.

Osasun zentro eta gizarte zerbitzuekin harremana eta elkarlana burutzen ari da. Honen harira, azpimarratu behar da koronabirusa ez zabaltzeko protokoloa herritar guztiei zabaldu dietela. Birusak sortarazten duen sintomatologia izanez gero etxean gelditu behar da eta 948 45 60 01 telefonora deitu (osasun zentroa); inork laguntza beharko balu Gizarte Zerbitzuetara (948 45 17 46 edo 638 52 97 85) edo osasun Etxeko gizarte langileari (948 45 60 01) telefonoetara deitu.

Idekita dauden denda eta zerbitzuetan egoerak eta protokoloak ezarritako neurriak betetzen ari dira. Telelanaren bidez ere hainbat jarduerak burutzen ari dira.

Egoera honek guztiok heroi bilakatu gaitu. "Heroi nagusiak" gure osasuna zaintzen



Maskarillak Doneztebetik Lesakara.

ari direnak, garbiketa eta hornidurak bermatzen dituztenak... "Herioiak" dira ere hainbat eta hainbat pertsona norbera bere etxeetatik, aktibatzen ari direnak: irakasleak, ikasleak, gurasoak, alkate eta udal taldekoak, adinekoak... Herrian egindako maskarillak Lesakako zahar etxera ere eraman dituzte foruzainek.

Segi dezagun amesten

Herria lo balego bezala dugu baina norbera amesten ari da hau guztia akitzean zer egingen duen. Amesten ari gara noiz gozatuko dugun Erreka dantza taldearen emanaldiaz, noiz txalotuko dugun Mendi Abesbatzaren kontzertua, noiz animatuko ditugun pilotari, futbolari eta eskubaloi jokalariek... noiz ospatuko ditugun gure pintxo-poteak, noiz elkar besarkatuko dugun, noiz moztuko dugun ilea, noiz erosiko ditugun arropa eta zapata berriak, noiz joanen garen mendira, hondartzara edo senideengana. Segi dezagun amesten, amets guzti horiek laster beteko baitira. Doneztebeko kronika, lasai ederrean munduko edozein herri txiki bateko kronika izan daitekeen. Segi dezagun amesten.

«Lanera bueltatzen garenean herritarren babes osoa beharko dugu aitzinera egiteko»

NATALIA REKARTE

KUKUKA ARROPA-DENDA

Donamariako alkatea eta Doneztebeko Merkataritza Elkartearen kidea den Natalia Rekarteri «aldaketa handia» eragin dio koronabirusak: «Iana utzi eta etxean geratu behar izan naiz, behar den bezala». Hasieran, denda «dirua mugitzen dugulako gel desinfektante batekin hasi ginen, gero metro bate-



Natalia RekarTE.

ko tartea utziz langileen artean eta langile eta bezeroen artean eta bat-batean ez zen neurririk behar, jenderik ez zebilelako, bezeroak desagertu zirelako. Jendeak behar-beharrezko gauzak erosten ditu eta gurea bezalako arropa-dendak eta hutsik gelditu ginen. Orduan erabaki genuen denda ixtea eta gero etorri zen agindua, premiazkoak ez ziren komertzio minoristak ixteko. Geroztik etxean gaude eta lehenagotik bete izanen bagenuen, hobe!». Agindutako neurriak bete behar direla uste du RekarTEk, baina «etxean egotea etxean egotea da, ez ondokoarekin kafea hartu edo ondokoarekin solasean aritu. Etxean ere segitzen dugu neurri horiek hartzen: gel desinfektantea erabiliz, distantziak mantenduz... birusa hemen baldin badugu kanpora ez ateratzeko eta kanpoan baldin badago etxera ez ekartzeko».

«Guri laguntzeko modurik onena bertako jendeak bertako komertzioan erostea da»

Denda itxi beharrak deus onik ekarriko ez duela uste du RekarTEk, «guk funtzionatzen dugun moduan, denboraldiko produktua erosten dugu, udako produktu gehienak hemen ditugu eta horiek ordaindu behar ditugu, faktura hagitz potoloak dira eta ez badugu saltzen, ezin ditugu ordaindu. Etxe horiekin solastatu dugu, ea hilabete bat gutxienez atzeratzen ahal dugun ordainketa, baina hilabete batera berdintsu egon gaitzke eta kreditu batekin ordaindu beharko genuke hori dena eta gero kreditua bueltatu, noski. Gu bezala, komertzio minorista gehienak, modako dendek horrela funtzionatzen dute».

Bueltan «aunitzek gure atea itxi beharko ditugu, hori garbi dago», dio Natalia RekarTEk. Hori ez gertatzeko herritarrei dei egin die: «zerbait erosi behar badute herrian erostea laguntza handia izanen litzateke. Guretzat autonomo kuota ez ordaintzea "laguntza" da, baina zulorik handiena ez da hori. Guri laguntzeko modurik onena, bertako jendeak bertako komertzioetan erostea da. Horrela egiten badugu, agian, aurrera segitzeko modua izanen dugu, baina ez badugu hori egiten aunitzek porrot egingen dugu. Faktura horiek denak ordaintzeko modurik ez dugu izanen. Ikusi beharko dugu zer egoeratan itzultzen garen denak eta ea buelta ematen ahal diogun».

Bidaia batzuk 2021era gibelatu dituzte

Jakinarazi dutenez, aurten izena emana zutenek lehentasuna izanen dute heldu den urtean

P. IRASTORTZA

Hasieran, «eraginik ez genuela antzemanen» uste bazuten ere, «nahaste-borraste ugari» eragin dizkio Covid-19 birusak Arkupeak elkarteari. Oraingoz martxorako eta apirilerako aurreikusiak zituen ekintza guztiak atzeratzera behartua izan da.

Alde batetik, Andaluziara martxoaren 14tik 21era egin beharreko irteera, eta bertetik ekainaren 20tik 27ra, Norvegiako fiordoetan barrena antolatua zegoen itsas-bidaia 2021arte, hau da, urtebete, gibelatuak izan dira. Aurten bai Andaluziarako, baita kruzorerako izena emana zutenei ere, 2021eko bidaietan «lehen-tasuna» izanen dutela jakinarazi diete.

Bartzelonara azaroan

Maiatzaren 4tik 7ra, Bartzelonara egin behar zuten bidaia, 2020ko azarora gibelatu behar izan dute. Bertzalde, eta arrazoi berarengatik, martxoaren 26ko Doneztebeko mus finalak eta apirilaren 2rako iragarria zegoen Soinketa Eguna



2021ean joanen dira Sevillara.

gibelatu dituzte. Azkenik, apirilaren 2rako prestaturik zegoen Euskal Kantu Eguna, gutxienez, eta hagitz baikorrak izanda, maiatzean ospatuko litzatekeela adierazi dute.

Benidormen egonaldia bakarra

Azken urtetan Benidormera bi irteera egiteko ohitura bazegoen ere, eta 2020an, epe motzera oztopoak gaitziteko itxuririk ez duenez, aurtengo maiatzaren 18tik 27ra antolatua zegoena, bertan behera uztea erabaki du elkarteak. Ez da ahantzi behar, urteroko udazkeneko hamar egunak urriaren erdialdean disfrutatzeko parada izanen duela nahi duenak.

Gabina Goia izanen da Arantzako ordezkaria

TTIPI-TTAPA

Osatu da iaztik hutsik zegoen Arantzako arduradun edo delegatuaren kargua. Oraindik, ofizialki, Elkarteko Batzordeak hurrengo bileran izendatu behar badu ere, Gabina Goia Iparragirre izanen da hemendik aitzinera, Arkupeak eta

herriko Elkarte-kideen harremanak erraztu eta zuzenduko dituena.

Elkarteak eskerrik oparoenak eman nahi dizkio, laguntzaile berri eta prestuari, luzaroan elkar lanean jarraituko duten itxaropenarekin. Bejondeizula Gabi!

Inor «osasun arriskuan ez jartzeko» neurriak hartu ditu elkarteak

TTIPI-TTAPA

Nahiz eta gehientsuenek aldateten arrazoiak ulertu, alde batetik zurrumurruek dabil-tzalako eta bertetik jendeak jakin dezan, elkarteak hartutako neurrien nondik norakoak argitu nahi izan ditu. Batetik, Covid-19 a zetorrela eta, elkarteak antolatutako ekintzetan, inor «osasun arriskuan ez jartzea» erabaki zutela argitu dute. Bertetik, birusak eragindako beldurragatik «bidaiak atzeratu» ditu. Erabaki hori Espainiako Gobernuak osasun-arauak jarri baino lehe-



Norvegiako bidaia ere gibelatu dute.

nago hartuak izan dira. Hortaz, agentziek dirua bueltatzeko jar zitzaketen oztopoen aitzinean, bidaiak gibelatzea erabaki zutela gaineratu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

126 lagun Xabierren izan dira

Aurten ere xarmanki pasatu zuten martxoaren 10an Xabierreko egun pasa egitera joan ziren 126 lagunek. Eguerdiko mezaren ondotik, bazkari ederra dastatu zuten Xabier jatetxean. Arratsaldean, berriz, musika eta dantza festa izan zuten Joxe Angelekin.

Aldaketen berri izateko erne egoteko deia egin dute

TTIPI-TTAPA

Ustekabeko egoera honek hainbat gorabehera sortu dituzte eta gaurko bizi-moldeak noiz arte dauden jakiterik ez dagoenez, aipaturiko ustekabeak, erabakiak, aldaketak edo akordioak direla eta laster bertze hainbat erabaki jaki-

narazi beharko direnez, bai Ttipi-Ttaparen baita herri-delegatuen bidez iragarriko dituztela adierazi dute. Era berean, Doneztebeko bulegotik ere aldaketen berri emanen dutela argitu dute. Horren aitzinean, «begiak eta belarriak tente izatea komeni da».

Salbuespen egoeran paperezko TTIPI-TTAPArrik ez

Harpidedunek posta elektronikoa jasoko dute aldizkariaren pdf-a eta ERRAN.EUS atarian ere eskura izanen da

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak TTIPI-TTAPAREN eguneroko martxan ere eragin zuzena izan du. Horren erakusle, joan den martxoaren 16tik lantaldeko gehienak etxetik ari dira lanean, aldizkaria prestatzen eta ERRAN.EUS ataria eguneratzen, bertzeak bertze, Covid-19a gaixotasunaren eta sortu duen egoeraren inguruko berriei jarraipen berezia egiten.

Web orriko bisitak goiti

Koronabirusean positibo eman dutenen testigantzak, gaixotasunari lotutako berriak, etxean konfinatzeko aginduen ondorioz aldi baterako lana utzi behar izan dutenei egindako elkarrizketak, etxean gelditu direnen bideoak eta irudiak, etxean egiteko arriak, aholkuak, artisten ekarpenak... Gisa batera edo bertze, *Xorroxin Irratiak* eta TTIPI-TTAPA aldizkariak berri, argazki, bideo eta audioz eguneratzen segitzen dute ERRAN.EUS ataria. Ez hori bakarrik, bisita aldetik emaitza onak jasotzen ari da, inoizko daturik onenak. Joan den urtetik honat %149,8 hazi da bisita kopurua eta aurten, urtea hasi denetik %60,1. Martxoaren 12an koronabirusaren lehebiziko berriak sartzen hasi zenetik, berri, %20 hazi da webguneko erabiltzaileen kopurua.

Aldizkariarekin ere lanean

Konfinamendu egoeran, paperezko edizioarekin ere lanean segitu du TTIPI-TTAPAKO lantaldeak, baina bi astetik behin 6.000 bat etxetara bi-

daltzen den aldizkaria fisiko-ki banatzeko ezintasunaren aitzinean –Correosek Hego Euskal Herrian eta La Postek Ipar Euskal Herrian ez dutela banatuko adierazi dute– eta etxetz etxe aldizkaria banatzen duten guztien segurtasuna bermatzeko, apirilaren 2ko

JOAN DEN URTETIK IA %150 HAZI DA ERRAN.EUS-EN BISITA KOPURUA



TTIPI-TTAPAREN 755. zenbakia online ikusi edo deskargatzeko aukera izanen duzue.

datarekin argitaratzekoa zen eta orain leitzen ari zaren aldizkaria paperean ez inprimatzea erabaki du TTIPI-TTAPAK. Hori bai, harpidedunek eta aldizkariako edukiak leituz gozatu nahi duten gainerako guztiek eskura izanen dute aldizkaria, harpidedunek e-mailez jasoko dutelako eta gainerakoek ERRAN.EUS atarian izanen dutelako. Online ikusi edo deskargatzeko aukera izanen dute. Gauden egoera

honetan, erabakia ulertuko duzuela espero dugu.

Luze gabe berri paperezko aldizkaria esku artean izanen dugulakoan gaude. Halaxe nahi genuke behintzat. Bitartean, lanean segituko dugu, gure eskualdeko herri eta bazterretako berriak zuen etxetarraino eramateko ahaleginean. Zaindu eta etsi goiari. Eta bide batez, eskerrik asko TTIPI-TTAPAREN bidelagun iza-teagatik!

Gu etxean gelditu gara eta zu?

Eskualdera ere ailegatu da koronabirusa. Positibo eman dutenak badira eta izanen dira, baina zabalkundea da saihestu nahi dena. Hala, koronabirusari aitzin egiteko, etxean konfinatzeko agindua dute herritarrek eta horixe da eskualdeko hainbat eta hainbatek egin dutena.

Horren harira, zabaldu zuen TTIPI-TTAPAK *Etxean geldituko naiz* kanpaina eta zuetako aunitz izan zarete kanpainarekin bat egin eta etxean gelditu zaretela irmoki adierazi duzuenak. Horren erakusle dira TTIPI-TTAPAK jasotako bideo eta argazki ederrak. Seme-alabekin edo bilobekin jostetan, solasean, kirola eginez... etxean dauden haur, gazte, heldu eta adinekoen irudiak ailegatu dira eta jaso ahala ERRAN.EUS-en zintzilikatzen segitzen dugu.



'Etxean geldituko gara' kanpainarekin bat egin dutenetako batzuk. ERRAN.EUS

Zuk ere bat egin eta bidali nahi baduzu, jakizu esku zabalik hartuko ditugula zure ekarpenak. *Etxean geldituko naiz* bideoa 699 11 98 13

zenbakira bidal dezakezu, eta *Etiket mundura* zabaldu nahi duzun bertze sormen lanen bat egin baduzu, bidali 744 484 361era.

«Prekarietatea sufritzen dutenak izanen dira kaltetuenak»

AMAIA GOIA ERRANDONEA EMAITZA AHOLKULARITZA

Jarduera eten behar izan duten autonomo eta enpresei eskainiko dizkieten laguntzei buruzko xehetasunak eman dizkigu Amaia Goiak

N. BAZTERRIKA BERA

Autonomo eta enpresetako kontabilitatea eta fiskalitatea bideratzen ditu Amaia Goiak. Koronabirusak eragindako egoeraren aitzinean, «bezero guztiei eskainiko dituzten laguntzen berri emateko» buru-belarri ari da lanean.

Laguntzak emanen dituztela iragarri dute... Autonomoen kasuan, zertan dira laguntzak?

Jarduera eten edo murriztu duten autonomoek eskaera egin beharko diote Mutuari. Bi laguntza daude: alde batek, langileak autonomo-kuotarik ez du ordainduko; eta bertzetik, dirulaguntza bat jasoko du.

Zer baldintza bete beharko dituzte jarduera eten duten autonomoek laguntza jasotzeko?

Martxoaren 14a baino lehen autonomo gisa alta emana izatea eta orain arteko kuotak ordainduak izatea. Ordainduak ez dituztenen kasuan kitatzeko hilabeteko epea dut. Eskatzaileek ez dute kotizazio-aldi minimoa bete beharko.

Noiz arte emanen dute laguntza?

Printzipioz hilabete baterako aurreikusi dute. Egoera luzatzen bada laguntzak mantentzeko direla erran dute luzatzen den hilabeteko hondarreko egunera arte. Hau da, maiztzer arte irauten badu, laguntzak maizatzen 31ra arte banatuko dituzte.

Zenbateko laguntza jasoko dute?

Kotizazio-oinarriaren %70a da jasoko dutena, mugak hauek



Amaia Goia, Emaizta aholkularitza enpresako arduraduna.

direlarik: gutxienez 660 euro eta gehienez 1.411 euro. Gizarte-segurantzaren prestazioak jasotzen dituztenek ez dute laguntzarik izanen.

Noiz arte eska dezakete?

Bi epe zehaztu dituzte. Batetik, geldiarazi dituzten jardueretan ari direnek apirilaren 14a bitarte eska dezakete. Bertzetik, Dekretuaren arabera euren jarduera eten beharrik ez dutenek baina egoerarengatik lan guttiago dutenek, berriz, apirilaren 1etik 14ra egin behar dute eskaera.

Azken hauek martxoan diru-sarreretan %75eko jaitziera izan dutela frogatu beharko dute. Martxoaren erdialdera arte lanean normal aritu direnez, normalena diru-sarreran

%50eko jaitziera izatea da, ez %75ekoa... Hori kontuan hartuz, jende anitzek ez du laguntzarik jasoko eta autonomo kuota ordaindu beharko du...

Eskatzaileek zer dokumentu aurkeztu behar dituzte?

Eskaera-orria beteta, Nortasun Agiriaren fotokopia eta mutua bakoitzak eskatzen duena.

Enpresek zer egin dezakete?

Lana aldi baterako erregulatzeko txostenak (ERTEa) tramita ditzakete Gobernuaren

«ENPRESEK LANA BERMATU BEHAR DUTE LAGUNTZAK JASO AHAL IZATEKO»

Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuan. Departamentuak, aurkeztutako dokumentuen arabera, jarduera etetea ezinbertzeko kasuagatik (463/2020 Dekretuko eranskinak zehaztutako jarduera izateagatik, hornigai faltagatik edo langileren bat kutsatzeagatik) egin dela baieztatu behar du. Jarduera ezinbertzeko kasuagatik eten ez dutenen kasuan (arazo teknikoek, ekonomikoek edo produktiboek... geldiaraztea eragin dutenean) langile eta enpresek adostu behar dute ERTEa.

Langileentzat zein neurri hartuko dira kasu horietan?

Lan gabe geldituko dira eta beraien kotizazio-oinarriaren %70a kobratuko dute (langabeziak dituen mugak kontuan hartuz). Kobratzeko, kotizazio minimorik ez dute eskatuko. Azkenik, orain jasotakoak etorkizuneko langabeziarako ez du kontatuko. Gaur-gaurkoz, hori da adostutakoa.

Enpresek ere badute laguntzarik?

Ezinbertzeko kasuagatik produkzioa eten dutenen kasuan, 50 langile baino gutxiago dituztenek enpresako Gizarte Segurantzaren kuotaren %100eko hoberia izanen dute. 50 langile baino gehiago dituztenek, berriz, %75eko hoberia izanen dute. Hau horrela izateko, enpresari enplegua ondoko sei hilabeteetan mantentzea eskatuko zaio. Horrela zehaztu dute. Bertzelako arrazoiengatik gelditu direnen kasuan, berriz, enpresek ez dute Gizarte Segurantzako hobaririk izanen. Kasu honetan ere, ondoko sei hilabeteetan enplegua mantentzea eskatu dute.

Beraz, langileak ondoko sei hilabeteetako lana bermatua du?

Enpresak laguntza jasotzeko hala beharko luke, bertzela bueltatu beharko duelako. Dena den, zaila izanen da eta, berriz ere, prekarietatea gehien sufritzen dutenak izanen dira kaltetuenak. Eraiki dugun sistema jasangaitza dela ikasi behar genuke krisi honetatik.

Herrietako laguntza sareak martxan

Adinekoei, arrisku taldeko pertsoneri eta umeak etxean bakarrik uzteko aukerarekin ez dutenei produktuak, elikagaiak eta botikak etxera eramatea eskaintzen diete

TTIPI-TTAPA

Beharrea dagoenari lagundu. Hala egin izan da betidanik herri txikietan eta egungo egoera berezi honetan ere ez da laguntzeko borondaterik falta. Barrideen, lagunena, senideen.. arteko sare naturalak dira, batzuk; azken asteetan ehundu dituzten sareak, besteak. Udalek eta herritarrek, elkarlanean, premian dagoenari laguntzeko sortu dituztenak.

Alarma egoera indarrean jarri bezain laster heldu zioten gaiari eskualdeko zenbait udalek. Hala azaldu dute Ladis Satrustegi Lesakako alkateak, Mikel Zabaleta Leitzako alkateak eta Joseba Otondo Baztango alkateak. Hau idazterakoan, Arantza eta Goizuetako udalek ere martxan jarria zuten Herritarren Laguntza Sarea eta Zugarramurdi herritar talde batek hartua zuen bere gain zerbitzua.

Leitzan 60 boluntario baino gehiagoko sarea

Leitzan, «herritarren erantzuna bikaina» izan dela azpimarratu nahi izan du Mikel Zabaletak: «hainbat herritar eta eragileen laguntza eskaintzak jasotzen hasi ginen udalean eta guztion artean pixkanaka osatu dugu sarea. Gizarte Zerbitzuak, Leitzako suhiltzaile boluntarioak, Atekabeltz Herriguneak, Sastrakak talde feministak, Torrea Elkartek eta beste hainbat eragilek eta norbanakok bat egin dugu. Sare honek deituta, jada 60 boluntario baino gehiagok eman dute izena».

Baztango Udalaren eta herrietako alkateen koordinazioa

Baztanen, etxean gelditzeko aginduak herritarrengan edukitzen ahal zituen ondorioetatzen pentsatzeko bilera egin zuten martxoaren 14ko asteburuan bertan. Joseba Otondok azaldu duenez, bertze tokietan egiten ari ziren ekimenei zeharka begiratu, baina Baztango berezitasunetik erantzuteko modua diseinatzen hasi ziren: «herrietako alkateak, kargodunak eta batzarrak ditugula da berezitasun hori. Zerbitzua

udalaren eta herrietako alkateen artean ematen da. Alkateek aldi berean kargodun eta alkate-lagunak dituzte. Egoera horretan eta kutsadura arriskuak albat gehien saihesteko, herrietako egiturak baliatu nahi izan ditugu, eta beharren arabera zabaltzen joan. Batetik bertze kutsatzen den birus batetaz ari gara eta horregatik ahalik eta segurtasun berme handienarekin jokatzeko eginahala egin dugu. Deia udaleko telefonoetan hartzen da eta ondotik herri-

ko alkateari deitzen zaio eta honek edo ardura duenak zerbitzua eskatu duen herritarri deituko dio».

Lesakan udalak egindako deiari erantzun bikaina

Lesakan ere, «herritarrei ahal dugun guztian laguntzeko» sarea martxan jartzeko erabakia hartu zuten. Ladis Satrustegi alkateak nabarmendu du boluntarioak direla sare horren oinarria: «kudeaketa herriko etxetik egiten dugu, baina zerbitzua boluntarioetan oinarritua dago. Herritarren arteko laguntzan dago gakoa. Erantzun hagitz ona ematen ari da jendea, eta hagitz kontent gaude».

Funtzionamendua

Leitzan funtzionamendurako protokoloa ezarri dute: «zerbitzua berme eta segurtasun neurri guztiekin eskaintzeko». Hala, udal ordezkariak laguntza eskaera jasotzen duenean, zenbait datu apuntatu, eta boluntarioen zerrendaren arduradunarekin jarriko da harremanetan. Honek boluntario bati deitu eta udal ordezkariarekin harremanetan jarriko da eta udal ordezkaria eta boluntarioa elkartu, eta honek behar dituen informazioa eta materialak (eskularruak, gela, txartela...) jasotzen dituenean, laguntza eskatu duen herritarrekin harremanetan jarriko da eta behar dituen gauzak etxera eramanez dizkio.

Baztanen antzeko funtzionamendua du sareak eta zerbitzuak protokolo zorrotza duela azaldu du Otondok: «telefono deia udalean hartzen dugu eta deitzaileari bere osasunaz galde egiten diogu eta zer behar duen galdetu. Ondotik herriko alkateari deitzen zaio eta honek edo berakizendatutakoak ardura hartzen du». Herriko alkateari edo arduradunari protokoloa zein den orotarazten diote beti: «ardura duenak herritarri deitzen dio behar dituen gau-

Alderdi emozionala

Behar fisiko eta materialez gain, behar emozionalak ere sortuko direla aipatu dute Leitzan eta Lesakako alkateak. Leitzan, Herritarren Laguntza Saretik saiatuko dira premia horiei ere erantzuten: «krisi egoera honetan ere pertsonak erdigunean jarri nahi baditugu, zaintza emozionalean ere arreta jarri behar da. Herri bezala, komunitatea indartzuz; elkar lagunduz eta lasaituz; bakardadea edo ezinegona sentitzen dutenei esku bat luzatu eta hemen gaudela erakutsiz eta kontzientzia kolektiboa landuz». Horretarako hainbat ekimen antolatzeke asmoa dute: «hala nola, bideo-collageak, abestiak, erronkak, mezuak, jokoak...». Egina dute lehenbiziko proposamena, bost segundoko bideo bat grabatu eta sareko kideei bidaltzeko eskaera egin diete herritarrei. Bideo guztiak elkartu eta sare sozialen bidez zabalduko duten bideo berezi bat sortzea da helburua. Parte hartu nahi duenak martxoaren 29ra arte bideoak bidaltzeko aukera du.

Lesakan, momentuz, auzotarren artean kontaktua mantentzeko eskatu dute: «telefonoz, leihotik leihora, balkoitik balkoira... hartu-emanak mantendu edo sustatuz». Horretaz gain, herritarrek informatu eta euren eskura bitartekoak jartzen ahalegintzen dira, «egunero solasten dugu gai honi buruz eta ideia berriak aztertzen ditugu, gure bizilagunei ere egoera arintzen lagundu nahian».

Herritarren laguntza sarea



Erosi eta etxera eramanean dizkiete

TELEFONOAK:

Lesaka:

948 63 70 05 (08:00-15:00)
eta 692 18 62 52

Baztan: udal ordutegian 948 580 006
eta bulego orduetatik kanpo 641872821

Leitza:

617 38 59 33

Arantza:

948 63 40 05 edo udala@arantza.eus

Goizueta:

647 86 21 79

Zugarramurdi:

661 87 59 06 (Onintza)
667 87 34 90 (Julene)
688 68 83 08 (Josebiñe)
630 70 02 06 (Itziar)
681 38 37 68 (Unai)

Momentuz, eskualdean martxan dauden Herritarren Laguntza Sareak.

zen zerrenda egiteko. Gero, erosketa egitera bakarrik joanen da, inor gabe eta erosketen zakua eramaterakoan eskuak garbitu beharko ditu. Eskatzailearen etxerat ailegatzekin txirrina jo eta erosketa atean utziko du, bertatik pixka bat urrunduz. Eskatzailea aterat ateratzekoan solas batzuk gurutzatzen ahal dituzte, zer moduz dagoen jakiteko. Bakoitza berera itzul-

tzerakoan eskuak berriz garbitu beharko dituzte».

Lesakan, erabiltzaileek zerbitzuan izena eman beharko dute eta dendara deituta telefonoz eskaera egin: «dendariak koordinatzaileari deituko dio, boluntario bat eskatuz. Boluntarioak dendariarekin eskaera noiz hartu hitzartuko du eta prest dagoenean eskatzailearen etxera eramanean du. Etxeko atean eskaera utzi,

tinbrea jo eta joan egingen da, kontaktua saihestuz. Ondotik, telefonoz deituko dio, eskaera bertan utzi duela adierazteko eta zerbait gehiago behar duen galdetzeko».

Kontuak gero

Dirua esku batetik bestera ibiltzea ez denez komeni, erosketak etxera eramandakoan dirurik ez dela trukatu adostu dute. Etxean gelditzeko aldia akitzen delarik zurituko dituzte kontuak. Bitartean, tiketak udal ordezkarien esku geldituko dira.

Kasuak identifikatzeko lanean

Sare batzuk martxan eta besteak premiak ezagutu nahian

dabilta. Malerrekan, adibidez, Gizarte Zerbitzuetako langileek kasuak identifikatzeko asmoz, herritarren artean mezua zabaldu dute: laguntza behar badute edo laguntza beharrean dagoen norbait ezagutzen badute 638 52 97 85 edo 948 45 17 46 telefonora deitzeko eskaera eginez. Momentuz, Gizarte Zerbitzuetako familia langileen bidez ari dira betetzen egon daitezkeen hutsuneak eta bizilagunen arteko sare naturalek ere indar handia dutela nabarmendu dute: «baina egoeraren benetako diagnostiko bat egin eta beharren arabera zerbitzua egokitzeko bi telefono horiek jarri ditugu herritarren eskura».

**EROSKETAK
ERAMATERAKOAN
EZ DA DIRURIK
TRUKATUKO**

**ETXEAN GERATZE-
KO ALDIA AKITZEN
DELARIK ZURITUKO
DIRA KONTUAK**



Gizarte zerbitzuak etenik gabe lanean

Aurrez aurre aritu beharrean, ahal denetan, telefono edo emailaz ari dira lanean eskualdeko gizarte zerbitzuetako langileak. Hainbat zerbitzu bertan behera utzi behar izan dituzte eta etxez etxeko zerbitzuan segurtasun neurri bereziak hartuta ari dira lanean

TTIPI-TTAPA

Atsedenerako tarterik gabe dabilta eskualdeko gizarte zerbitzuetako langileak; egoera berrira egokitu nahian. Erabakiak azkar baina tentuz hartu behar izan dituzte herritarren beharrei erantzun ahal izateko. Badakite gaur baliagarri zaien formula etzi egokitu beharko dutela: «egunetik egunera egoera aldatuz joanen da eta ondorioz, gure arreta eta zerbitzuak, egoera berrietara egokitu beharko ditugu».

Baztan, Malerreka, Bortziriak eta Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuek eskaera argia egin zuten COVID-19ak egoera errotik aldatu zuenean: herritarrak etxean gelditzeko deia egin zuten. Beraiek ere bulegoko teknika-rien arreta telefonoz bermatzen

dute: telefono bidez tramiteak martxan jartzen dituzte (errenta bermatua, guraso bakarreko familia txartelak, familia ugariko txartelak,...) eta orain arte esku-hartzeetan ari ziren familia edo norbanakoen jarraipena egiten ere segiko dutela azpimarratu dute guztiek.

Jarraipen berezia

Egungo egoera ikusirik, adinekoei, arrisku taldekoei, behar bereziak izan ditzaketen herritarrei... deitzen ere ari dira, nola dauden galdetu eta zerbait

JARRAIPEN BEREZIA EGITEN DIETE ADINEKO PERTSONEI

behar ote duten jakiteko. Beharrezkoa bada, herritarren laguntza sareekin harremanetan jartzeko bitartekari lana ere egiten dute gizarte zerbitzuetako langileek. Baztanen, gainera, etxeko lanetan interna ari direnen kasuak ere arretaz ari dira aztertzen.

Kasuak identifikatzeko lan horretan ez dira bakarrik ari. Osasun Zentroko profesionalekin lan koordinatua egiten dute babesik gabeko egoeran dauden pertsonak eta familiak identifikatzea lortzeko. Osasun zentroaz gain, udalekin, es-

BEHAR BERRIEI ERANTZUTEKO PRESTATZEN ARI DIRA

kola eta institutuarekin ere zuzenean daude harremanetan, «inoiz baino garrantzitsuagoa da erakunde eta eragileen arteko sarea sendoa izatea».

Etorkizuneko beharrak

Egoerei aurre hartu eta erantzuna prest izatea ere gizarte zerbitzuen lanaren parte da. Herritarren ohiturak goitik behera aldatu direla kontuan izanda: etxean egon beharra, mugitzeko askatasunik ez... hainbat arazo sor daitezkeela aurreikusten dute teknikariek. Familia elkarbizitza zailtasunak, familia kideekin denboraren gestioa, errutinak.. diseinatzeko orientazio beharra, harreman sozialak murriztu diren honetan solastatzeko beharrak areagotzea, edo gaur egun aurreikustea zailak diren bertzelako egoerak: «horiei guztiei erantzun egokituak ematen saiatuko gara, beti ere gure gaitasun eta baliabideak aintzat hartuta».

ETXEZ ETXEKO ARRETA ZERBITZUA BERRANTOLATU DUTE



Etxez etxeko zerbitzuak

Etxez etxeko zerbitzua behar berrietara egokitu behar izan dute. Nafarroako Gobernuak argitaraturako foru aginduan oinarrituta, kasu guztiak aztertu eta kontingentzia plana egin dute, erabiltzaile bakoitzak jaso beharreko zerbitzu mota eta intentsitatea zehaztuz. Horren ondorioz, kasu batzuetan zerbitzua indartu eta beste batzuetan zertxobait murriztuko dute. Etxeko langileak babesteko neurri bereziak ere hartu dituzte eta horiek dituzten bitartean, lanean segituko dutela adierazi dute. Gainera, etxebizitzetan ere neurri bereziak hartu eta pertsona bakoitzarengana zain-tzaile bakarra joateko berrantolaketa lanak ere egin dituzte. Arreta aurrez aurre zein telefonoz eskaintzen dute, erabiltzaileen nahia kontuan hartuz.

KORONABIRUSAREN AURREAN ETXKO BIZIKIDETZA OSASUNGARRI BAT NOLA ERAMAN DEZAKEGU?

BIZIKIDETZA: POSITIBOTIK

- Salbuespenezko momentua bizitzen ari garenez aprobetxatu:
- 1) Familiako kideak hobeto ezagutzeko eta batez ere alderdi positiboak baloratzeko.
- 2) Gauza berriak ikasteko. Ez al zara ari egunero gauza berriak ikasten?

BIZIKIDETZA OSASUNGARRIA ERAMATEKO GAKOAK

- Etengabe etxe berean egon arren honakoa adostu:
- 1) Saiatu egunero momentuak eta espazioak topatzen hiru egoera hauetarako:
 - Familia osoa elkarrekin egoteko.
 - Sare desberdinen bidez maite ditugun pertsonekin harremantzeko.
 - Norbera bere buruarekin egoteko (teletelana egiteko, ofizioak aurrera eramateko, jolasteko edota nahi duena egiteko. Intimitatea errespetatu.

Komunitate lana

Herritarrentzat informazio iturria ere izan nahi dute gizarte zerbitzuek. Telefono edo email bidez jasotzen dituzten informazio edo orientazio eskaerak erantzunen dituzte eta materiala ere sortzen ari dira. Egoera honen aurrean nola jokatu behar den jakiteko bitartekoak eskaini nahi dituzte. Jasotzen dituzten aholku, gomendioak, informazioa... jendartera modu ulergarrian zabaltzen saiatuko dira sare sozialen, kartelen... bidez. Horretarako, bestelako entitateekin elkarlanean ari dira (besteak beste, osasun etxeekin udal edo norbanako egitasmoak herritarren artean ezagutzera emanen dituzte eta tokian tokiko laguntza sare edo baliabideen ezagutza bermatzen ahaleginduko dira, inoiz baino gehiago elkarlana sendotuz.



Jubiloteka bertan behera

Koronabirusa dela eta, berehala hartu zuten erabakia. Arizkun, Elizondon, Erratzun, Zubietan, Urdazubin, Donezteben, Ezkurrán, Sunbillan, Beran, Lesakan, Aranon, Goizuetan, Leitzan eta Areson ez dute jubilotekarik izanen konfinamenduak irauten bitartean. Bilkurak bertan behera utzi dituzten arren, horietako aunitzetan, begiraleek jarraipena egiten diete parte-hartzaileei. Ez da izan bertan behera gelditu den zerbitzu bakarra, berdin gertatu da eskola laguntzarekin. Azken kasu honetan, hainbat gizarte zerbitzutan irtenbide bila dabilta, zerbitzua telematikoki ematea darabilte batzuek burutan. Besteak, berriz, irakasleekin koordinatzen ari dira egoerari ahalik eta irtenbiderik eraginkorrena eman ahal izateko.



Egoera zaurgarrian daudenei deiak

Laguntza behar duten kasuak identifikatzeko adinekoak, arrisku taldeetako herritarrak, behar bereziak izan ditzaketenak... telefonoz deitzen ari dira, nola dauden galdetu eta zerbait behar ote duten jakiteko. Beharrezkoa bada, herritarren laguntza sareekin harremanetan jartzeko bitartekari lana ere egiten dute gizarte zerbitzuetako langileek. Baztanen, gainera, etxeko lanetan interna, ari direnen kasuak ere arretaz ari dira aztertzen. Telefono deiak egin soilik ez, jaso ere egiten dituzte. Hala, genero indarkeria pairatzen duten biktimei laguntza eske gizarte zerbitzuetara jo dezakela gogorarazi nahi diete eta informazio eta aholkularitza juridikoa behar dutenetan 016 telefonora deitu dezakela.

Herrietako medikuen kontsultak itxita

Doneztebeko Osasun Zentroa deituta artatzen dituzte Malerrekako eta Bertizaranako gaixoak

TTIPI-TTAPA

Covid-19 gaixotasunak goiti beheiti aldatu du eguneroko martxa; baita osasun zerbitzuetan ere. Lanean segitzen badute ere, ezohiko funtzionamendua dute. Koronabirusa tarteko, hainbat aldaketa egin eta neurri hartu behar izan dituzte. Hala ere, «beharren arabera, neurriak egokitu dituztela» adierazi dute.

Joan den martxoaren 18az geroztik itxita daude herriz herriko medikuen kontsultategiak eta medikuek kontsultak Doneztebeko Osasun Zentroan hartzen dituzte. Erizainak ere Doneztebeko Osasun Zentroan ari dira lanean, baina Doneztebera hurbildu ezin dutenen kasuan, astean behin edo bitan pazienteak artatzera herrietara hurbilduko direla adierazi dute.

Horrez gain, beharrezkoak ez diren eta presarik ez duten azterketak eta probak gibelatu dituztela adierazi dute Osasun Zentrotik, «beti ere, gibelatze hori gaixoarentzat arriskutsua ez dela bermatu ondotik». Bertzetik, aipatu behar da, bajaran egon ondotik, Sunbillako medikua martxoaren 23an hasi zela lanean eta egun horretan hasi zen erizain berria ere, lehengoa jubilatuta delako.

Pazienteak hiru multzotan

Doneztebeko Osasun Zentroan pazienteak hiru multzotan artatzeko erabakia hartu dute. Alde batetik, arnasketa arazoak dituzten gaixoei zentroan sartuta ezkerretara dagoen erabilera aritzeko gelan eskaintzen diete kontsulta, 13:00etatik 15:00etara bitarte. Bertzetik,

bertzelako patologiaren bat dutenak mediku bakoitzak bere kontsultan artatzen ditu. Pediatriako haurrak, berriz, pediatriako erizainak eta pediatriarekin biltzen dira, arnasketa arazoak dituzten haur kozkorrenak izan ezik, horiek erabilera anitzeko aretora bideratzen dituztelako.

Laguntza emozionala


Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, bere alde-tik, laguntza emozionala behar izanez gero Nafarroako Gobernua 848 42 00 90 telefonora deitzeko aholkatu du eta bertzelako laguntza behar izanez gero Mankomunitate-ara deitzeko adierazi dute (948 45 60 01).

Jubilotekak itxita

Malerrekako lau herrietan dauden jubilotekak ere itxita daude martxo erditik. Hala, Zubietan, Donezteben, Ezkurreran eta Sunbillan ibili ohi diren 65 urtetik goitiko 41 lagunak ere zerbitzurik gabe egonen dira bertze abisuren bat ailegatu arte.



Herrietako kontsultak itxita, medikuak Doneztebeko Osasun Zentroan ari dira lanean.



Otsailaren 24an gurasoek Osasun Kontseilariarekin egindako bilera.

Pediatra aste honetan hasi da

Pediatraren zerbitzuan aldaketak izan dituzte Doneztebeko Osasun Zentroan azken asteotan. 2019ko azaroaz geroztik pediatrik gabe egon ondotik, gurasoen sinadura bilketa eta eskaerak etorri ziren eta hala, martxoaren 10ean hasi zen lanean pediatria. Titularraren bajaren hilabete bateko ordezkapena egitera etorri zen baina martxoaren 20ean berriz pediatrik gabe gelditu ziren Malerrekako eta Bertizaranako haurrak. Aste honetan, ordea, martxoaren 30ean, berriz pediatria lanean hastekoa zen, 08:00etatik 12:00etara, eta berak eta pediatriako erizainak artatuko dituzte haurrak. Hori bai, arnasketa arazoak dituzten haur kozkorrenak arazo hori duten helduak bezala tratatuko dituzte, erabilera anitzeko gelan, 13:00etatik 15:00etara.



**ATERA
TTIPI TXARTELA
eta erabili**
pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!



Otsagabiatik arbasoen berri izatera etorriak

Antonio eta Pedro Telletxea mutil-nagusien ondorengoak etorri ziren otsailean herria ezagutzera

PELLO TELLETXEA Otsagabiko Telletxeatarrak beraien arbasoak jaio eta bi-zitutako lekuak ikustera itzuli dira Beintza Labaienera otsailean. Besteen artean, familiaren sortetxera bisita gustora egin ondotik, Ittur-ondo elkartean bazkaldu zuten, mahaiera hainbat herritar bertaratu zirelarik, bai familiartekoak eta bai mendian lanean aritutakoak.

Familia honen historia laburra: Oso ezagunak ziren Iratiko mendietan Antonio eta Pedro Telletxea Mutuberria

mutil-nagusi edo kontratistak bezala, 200eko mutileko taldea osatzera iritsi omen baitziren.

Antonio eta Pedroz gain, hauen arreba Mikaelak (Urrozko Berraburukoa) 12 seme-alaba izan zituen. Miguel, beste anaia, 1936ko gerran Teruelen hil zuten, trintxeran zegoela.

Senide hauen gurasoak, Domingo eta Madalen izan ziren. Domingo maindire jostuna zen eta honen anaia, Ixtuzarreen bizitzen zen Miguel Anton, baserriko lanaz gain zapatagilea ere bazen.



Otsagabiko Telletxeatarrak, Beintza-Labaiengo herritarrekin. UTZITAKOAK



Telletxeatarrak Leartzako bordako atarian. Ondoan, Antonio Telletxea. UTZITAKOAK



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbillan!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren araberako finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin

Herritarrei bideo bat osatzeko erronka luzatu diete

Elkartasun mezuak, irrintziak, hausnarketak, agurrak, muxuak... martxoaren 29a baino lehen bidali behar dira

TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren ondorioz, sor daitezkeen beharrak modu kolektiboan eta elkartasunez asetzen saiatzeko Herritarren Laguntza sarea sortu dute. Leitzako Udala eta hainbat eragile elkartu dira (Atekabeltz Herrigunea, Sastrakak talde feminista, suhiltzaile boluntarioak, Leitzako Ezker Aibertzailea, Gazte Asanblada, Gizarte Zerbitzuak...) eta dagoeneko 60 boluntariok eman dute izena. Behar materialak edo fisikoak asetzea da asmoa baita behar emozionalak ere.

Horregatik, hainbat ekimen antolatzeko asmoa dute: bideo-collageak, abestiak, erronkak, mezuak, jokuak...

Ariketa kolektibo bat proposatu dute, «bakoitzak etxetik bost segundoko bideo bat grabatu (horizontalean) eta 617 38 59 33 telefonoa bidal dezala, martxoaren 29a baino lehen». Norberak nahi duena bidal dezake: «elkartasun mezuak, irrintziak, hausnarketak, agurrak, muxuak...». Ondoren, mezu guzti horiekin bideo bat egin eta whatsapp bidez zabalduko dute.



750 lasterkaririk parte hartzen dute; 700ek bakarka eta 50ek bikoteka.

Euskal Herria Mendi Erronkako data bere horretan mantendu dute

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 6rako egina dute hitzordua Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartzeko asmoa dute lasterkariek. Hainbat lasterketa izan dira koronabirusaren ondorioz, bertan behera gelditu direnak baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, «momentuz bere ho-

rretan mantenduko» dutela hasierako data». Horregatik, *Etxean bai, baina geldirik ez* kanpaina abiatu dute sare sozialetan. Kirola edo ariketa fisikoa etxean nola egiten duten galdetu diete jarraitzaileei eta argazki edo bideoak bidali edo sare sozialetan partekatzera gonbidatu dituzte.



E. IRAOLA

Kaleetan txorien kantua nagusi

Alarma egoera ezarri dutenetik ezohiko itxura du kale nagusiak. Balkoitik balkoirako elkarrizketak eta txorien kantua da nagusi. Erosketak egitera ateratzen diren gutxi horiek ere babes eta segurtasun neurriak betetzen dituzte. Animo denei, gutxiago falta da eta!

Hondakinen bilketa zerbitzuan hainbat aldaketa izan dira

Mendialdea Mankomunitatean lanean ari da gaur egungo egoerak hondakinen bilketa zerbitzuan ahalik eta eragin txikiena izan dezan. Horretarako, herritarren laguntza ezinbestekoa dela azpimarratu dute eta hainbat gomendio luzatu dituzte: «hondakin kopurua gutxitzea, konposta indartzea, poltsak ondo ixtea eta ontzi arinen bolumena gutxitzea». Edukiontzitik kanpo ezer uztea debekatua dagoela ere gogorarazi dute eta egoera normalizatu arte, premiazko kudeaketa behar ez duen hondakinik ez ateratzeko deia ere egin dute. Leitzako eta Goizuetako garbiguneak itxita daudela ere jakinarazi dute eta Traperos de Emausek ez duela etxeko zerbitzua eskainiko, «horregatik, ganbara garbiketarako saihestu beharko lirateke».

Haur eskolako aurrematrikulazioa atzeratu dute

Martxoaren 16tik 27ra arte egitekoea zuten Leitzako Itzaire Haur Eskolan aurrematrikulazio kanpaina. Bertan behera geldituko da egoera aldatu eta haur eskola berriro martxan jarri arte. Arduradunek adierazi dute orduan jakinaraziko dituztela epe berriak.

Bertako ekoizle eta baserritarrei laguntzeko irtenbide bila

Ostiralero azoka bertan behera gelditu denez eta debeku asko daudenez, haien produktuak merkaturatzeko arazoak dituzte herriko ekoizle eta baserritarrek. Udalarekin eta herritarren laguntza sarearekin harremanetan daude eta alternatibak pentsatzen ari dira.

«Herritarrei bertako produktuak kontsumitzeko aukera eman nahi diegu»

XABI KUETO ARANOKO ZINEGOTZIA

TTIPI-TTAPA

Herritarrek ekoizitako produktuak herrian bertan kontsumitzeko helburuz, Kontsumo Taldea sortzeko lanean ari dira Aranon. Dagoeneko lehen-dabiziko urratsak eman dituzte eta epe luzera begira, «aukerarik izanez gero, salmentarako gune finko bat» sortu nahi dute.

Sortzez bizkaitarra den arren, Aranon bizi da Xabi Kuetok. 2019ko ekainaz geroztik, herriko zinegotzia da eta, udal taldeko partaide gisa, «herritarrek behar duten guztian, ahal den neurrian, laguntzea» da bere egitekoa. Herria ez ezik, bailara ere begiz joa du bizkaitarrak. Izan ere, «Mendialdeko eta Cedernako ordezkaria da, baita babes zibilekoa ere».

Udal taldeko ardura eta Cedernakoa uztartuz, Kontsumo Taldea eratzeke emandako pausoak gertutik segitu ditu Kuetok. Izan ere, «Cedernan eskualdean lehen sektorea suspertzeko lanean diharduen teknikariarekin izandako bileretatik» sortu zen taldea sortzeko ideia.



Taldearen helburua «bertako ekonomia suspertzea» da, eta horretarako, «Aranon dauzkagun ekoizleek zer egiten duten zabaltzeari» beharrezko deritzote. Era berean, «ekoizleek eta erosle izan daitezkeenek elkar ezagutzea» bultzatu nahi dute.

Ezagutze-lanean hasiak dira, bilerak eginez eta, pixkanaka, taldea egituratuz: «lehendabiziko hitzorduan hiru besterik ez ginen bildu, bigarren

«SOR DAITEZKEEN EKOIZLE TALDEEKIN LOTURAK ERAIKI NAHI DITUGU»

bilerara, berriz, zortzi lagun etorri ziren». Geroztik, «beste batzuk taldera batzearen alde agertu dira».

Momentuz «Aranon bakoitzak eskain dezakeena» bilduz, «taula bat» osatzen ari dira eta «beste lekuetan egiten ari diren ereduak» ezagutu nahi dituzte: «hurrengo bilerarako gutxieneko arau batzuk eratzea adostu dugu». Aurrera begira, «Urumeako bailaran eta eskualdean sor daitezkeen taldeekin loturak eraiki» nahi dituzte. Gehiago ere bada: «salmentarako gune finko bat eratzeke» aukera ere aztertu nahi dute, «baina hori epe luzera izanen litzateke».

Taldeari esker, herritarrei «bertako produktuak kontsumitzeko aukera» eman nahi diete: «horrela, beharbada, jendea gehiago ekoiztera animatuko da eta gazteek lan aukera ikusi eta herrian gelditzea erabakiko dute».

Herriak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko modua ikusten du Kuetok talde honen eratzearekin eta hori «aprobatzeko» deia egin die herritarrei: «epe ertain eta luzera begira guztion mesederako izanen da eta».

enpresa ari direla zeregin horretan. Bertan, baserritar txikiak salgai jarriko dituzten beraien produktuak. Azaldu dutenez logistikoki ahalik eta modurik sinpleenean antolatu dira: herri edo eskualdeka, dagoeneko sortu diren zaintza sareen bidez edota sortuko dituzten beste modu eraginkorrenen bidez.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak *baserrikopla-*

Familia bat gutxienez koronabirusagatik berrogeialdian

TTIPI-TTAPA

Goizuetako Udalak herrira koronabirusa iritsi dela jakinarazi du. Familia bat «gutxienez» berrogeialdian dagoela argitu dute. Horrekin batera, «etxean gelditzeko» eskaera egin dute. Atera behar izatekotan, berriz, «erosketak antolatu, distantziak mantendu eta eskuak maiz eta ongi garbitu», behar direla gogorarazi diete herritarrei.

Herritarren laguntza sarea ere martxan jarri dutela jakinarazi du udalak. Adineko pertsoneri, arrisku taldeetakoiei, edota haurrak etxean bakarrik uzterik ez daukatenei laguntzeko. Horiek, telefonoz deitu dezakete, 681 265 187 zenbakira eta laguntza sareko norbait joan da behar dituzten produktuak, elikagaiak edo botikak erostera eta etxera eramanez dizkiete.

Era berean, Udalak jakinarazi du, martxan jarraituko dutela udal zerbitzuek; baina ahal dela udaletxera joatea saihestu, eta tramiteak telefonoz (948 51 40 06) edo emailaz (*udala@goizueta.eus*) egitea eskatu dute. Bide batez, «zentsuz jokatu, abisuei kasu egin eta aglomerazioak ekiditeko» ere eskatu dute birusa zabal ez dadin.

'Baserriko Plaza' sortu dute tokiko elikagaiak herritarrengana iristeko

TTIPI-TTAPA

Egoera berezi honen aurrean, baserritarrei euren produktuak saltzeko aukera eskaintzeko *Baserriko Plaza* ekimena jarri dute martxan. EH kolektiboko hainbat baserritar eta eragile elkartu dira, tokiko baserritarren elikagaiak herritarrengana

na iristeko modua bilatzeko. Tokiko baserritar txikiengana ere zabaldu nahi lukete ekimena, argia da zabaldu nahi duten mezua: «baila dezagun egoera hau denok indartzeko».

Horretarako, *baserrikoplaza.eus* web orrialdea osatu dute. Aipatu behar da Aranoko bi

za@gmail.com helbidera idatziz edo 688 86 70 20 zenbakira dei dezake. Ekimenean parte hartu nahi dutenei ere bertan jakinaraziko dizkiete hurrengo pausoak.

Egoerak azkartasunez jokatzea eskatzen dietela ere azaldu dute, «produktuetako batzuk galkorrak direlako, azkar jokatu beharra dugu. Ahalik eta erangikorrenak izaten saiatuko gara».

«Koronabirusari bostok elkarrekin aurre egingo geniola erabaki genuen»

GEREÑO-BRAZETE FAMILIA

Semeak koronabirusa zuela esan zietenetik Aresoko Txuinea baserrian bakartuta daude familiako bost kideak; Maitane, Richard eta lau, hiru eta urtebeteko seme-alabak

E. IRAOLA ARESO

Martxoaren 12an goitik behera aldatu zen Aresoko Gereño-Brazete familiaren eguneroa. Mateo, lau urteko semea, eskolatik bazkaltzera etorritakoan arraro xamar sumatuta arratsaldean eskolara ez eramatea erabaki zuten. Ezin pentsa zezaketen, ordurako, koronabirusa etxean zutela. Kezkak, beldurrak, erabakiak hartu beharra, irudimena, barreak, familiaren lotura... guztiak aipatu ditu Maitane Gereñok bizitzen ari diren azken hitz egiterakoan. Etxeko bostak Txuinean bakartu eta elkarrekin gaixotasunari aurre nola egiten ari diren azaltzeko eskatu diogunean.

Nola hasi zen guztia?

Mateo, lau urteko semea, martxoaren 12 eguerdian eskolatik etorritakoan arraro xamar sumatu genuen eta arratsaldean ez zela eskolara joango erabaki genuen. Ez zuen sukarririk edo bestelako sintomarik, baina ez dakit sena edo zer izan zen erabaki hori hartzera bultzatu gintuena. As-teazkenean hiru irakasle ez ziren lanean aritu, bat gaixo zegoela eta beste biak prebentzio neurri bezala etxera bidali zituztela esan zuten. Koronabirusaren zurrumurrua zabaldu zen gurasoen artean, baina inork ez zuen kontua segurutzat jotzen. Ostiralean ere Mateo ez zen eskolara joan eta eguerdian audio mezu bat bidali ziguten eskolatik, ira-

kasleak positibo eman zuela esanez. Hori entzundakoan, Osasun Etxera deitu nuen segituan.

Berehala esan zizueten semeak koronabirusa izango zuela?

Ostiral arratsalde-iluntzean konfirmatu ziguten positibotzat hartzen zutela. Ez zioten testa egin, dena telefonoz izan zen, baina kriterioak betetzen zituzten: positibo emandako

pertsona batekin hartu-eman zuzena izan zuen eta sintomak zituen, hasieran eztula. Positibotzat hartzen zutela esan ziguten eta hortik aurrera guk ere hala jokatu behar genuela. **Zeintzuk ziren hartu beharreko neurriak?**

Umea bakartu behar genuela esan ziguten. Hogeitabat egunez gela batean egon beharra zuela, atera gabe. Bi gurasoetako



Mateo eta Amelia, etxean jolasean. M. GEREÑO

Birus bidaiariaren ipuina

Etxean gertatzen ari zena seme-alabei argi azaltzea erabaki zuten hasieratik. Ipuin itxuran kontatu zieten zer zen koronabirusa: «birus bidaiari bat zegoela kontatu genien, munduan zehar ibiltzen zena. Aurrena Txinan izan zela, gero Italiara joan zela eta orain Aresora iritsi zela, gure etxeraino. Birusak gehiago ez bidaiatzeko eta inor gehiago ez gaixotzeko etxean egon behar genuela azaldu nien». Maitanek dionez, hasieratik ulertu eta onartu zuten Mateo eta Ameliak (lau eta hiru urte dituzte) etxean egon beharra zutela «beraiek argi diote: 'ni gaixorik nago, koronabirusa daukat eta ezin gara etxetik atera beste inor ez kutsatzeko'». Ttikienak, Mariak, urtebete du eta ez du ulertzen zer gertatzen den.

bat bakarrik sar zitekeen gela horretara eta batek hartu behar zuen beti horren ardura, beti ere babes neurriak hartuta (maskara eta eskularruak jantzita). Bere arropak, oinetakoak, mahai tresnak... bereak bakarrik izan behar zutela eta arropak ere banatuta 90 gradutan garbitu behar genituela esan ziguten.

Zein izan zen zuen erreakzioa?

Momentuan harrituta gelditu ginen, entzun ahala baietz erantzuten genien. Telefonoa eskegi orduko ohartu nintzen ez zela posible. Nola eduki behar nuen lau urteko haurra hogeitabat egunez bakarrik? Bere senideak ikusi gabe, gurasoetako bat ikusi gabe. Lau parentean, atera gabe. Hogeitabat egun sendatzeko beharko zituela esan ziguten eta beste hamar prebentziokoak. Denera, hilabete bat. Guk ere ezin genuen hamalau egunez etxetikatera, kontaktu zuzenak ginelako. Bostok elkarrekin bakartzeko erabakia hartu genuen orduan. Protokolo batzuk bete behar dituzte eta hasieran traba batzuk jarri zizkiguten, baina ez genuen atzera egin gure erabakian. Geroztik, egunero jasotzen dugu Osasun Zerbitzuetatik deia eta egoeraren jarraipena telefonoz egiten dute.

Gaixotasuna nola azaldu zientien seme-alabei?

Gauzak argi azaldu dizkiegu hasieratik. Birus bidaiari bat zegoela kontatu genien, munduan zehar ibiltzen zena. Aurrena Txinan izan zela, gero Italiara joan zela eta orain Aresora iritsi dela, gure etxeraino. Birusak gehiago ez bidaiatzeko eta inor gehiago ez gaixotzeko etxean egon behar genuela azaldu nien. Mateok eta Ameliak, seme-alaba zaharrenek, (lau eta hiru urte dituzte) oso ongi hartu zuten. Beraiek argi diote: 'ni gaixorik nago, koronabirusa daukat eta ezin gara etxetik atera beste inor ez kutsatzeko'. Ttikienak, Mariak, urtebete bakarra du eta ez du ulertzen zer ger-



Gereño-Brazete familia Aresoko Txuinea baserrian baserrian bakartuta dago martxoaren 12az geroztik. M. GEREÑO

tatzen den. Nire gurasoek egiten dizkigute erosketak eta etxe inguruko hesian utzi eta etxera bisitan ez etortzea, ulergaitza da beretzat.

Familiako beste kideek ere izan dituzue sintomak?

Mateo izan da okerren pasa duena, arnasa hartzeko arazo handienak berak izan dituelako. Pare bat krisialdi izan ditu, baina buelta ongi eman die. Familiako bost kideetako

«ETXEAN EGON BEHARRA EZ DA ARAZOA, GAIXORIK EGOTEA BAI»

«GAIXOTASUNA MODU POLIT BATEAN ERE ERAMAN DAITEKE»

MAITANE GEREÑO

lauk izan ditugu sintomak. Guztiek, Richard senarrak, izan ezik. Sukar alturik ez dugu izan, febrakula, beherakoa, eztula, eztarria marrakatuta... maila desberdinetan baina horiek izan dira izan ditugun sintomak.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Egunero ariketa edo ekintza bereziren bat egiten saiatzen gara. Anai-arrebek elkarrekin asko jolasten dute, baina denok elkarrekin pasatzeko momentuak bilatzen ditugu: bizkotxo bat egin, aurpegia margotu... Herritik urruti, baserri batean, bizi gara eta pribilegiatu batzuk garela uste dut. Ukuilu, ganbarak, etxe atariak... arnasa hartzeko aukera ematen digu. Igandetean, normalean, mezara joan eta gero kroketa bana jaten dugu eta pasa den astean nire gurasoak etxe ondoko hesira etorri eta kroketak eta bermuta ekarri zizkiguten. Hiru metroko distantzia mantenduz, baina ohitura mantendu ge-

nuen. Arkumea ere prestatu genuen bazkaltzeko eta txanpainarekin ospatu genuen bostok ongi gaudela eta elkarrekin. Zorionez, ospitale beharrik ez dugu izan. Bostetako bat Iruñera eraman beharra baldin bazen bestelakoa izango zen egoera. Ez dituzte bisitak onartzen... Ez dut egoera hori imajinatu ere egin nahi. **Nola daramazue emozionalki?** Gogorra da. Seme-alaben aurrean dena polita jartzen saiatzen zara, baina egia da badi-rela momentu zailak ere. Guri tokatu beharra, eskualdean lehenengoak izatea... askotan pasatzen zaizu burutik. Nahiz eta mundu erdia gaixorik egon, zuri tokatzen zaizunean ez da erraza. Etxean egotea ez da

«FAMILIAKO BOST KIDEETATIK LAUK IZAN DITUGU SINTOMAK»

arazoa, ederki gaude etxean. Arazoa gaixorik egotea da, beldur hori izatea. Medikuek ere zer den ongi ez jakitea eta birusa etxean duzula ikustea. Kezka hori duzu guraso bezala eta ingurukoek ere sortzen dizute kezka. Aiton-amonak ongi ote dauden... Egunak aurrera joan eta sintomarik ez dutela ikusita, lasaitu naiz. Semearen eskolako kideak ere ez direla kutsatu ikusitakoan asko poztu naiz. Ikaragarria izan zitekeen, bata bestearen atzetik kutsatu eta herri guztian zabalduko zen. Guk jokatu dugun moduarekin ere harro gaude, kezka ttikiena izanda etxean utzi genuen haurra eta badakigu hori eginda klasekide gehiago kutsatzea ekinin genuela.

Nola kudeatu duzue jasotako informazioa?

Informazio gehiegi dago eta aldi berean hasierako momentuan guraso bezala genituen kezka argitzeko, erantzunak falta izan zitzaizkigun. Mezuak, telefono deiak... bombardaketa bat izan zen lehenbiziko egunetan jaso genuena. Eromena izan zen. Baina lasai eta ongi eraman dugu guztia. Eskutik heldu eta aurrera, elkarrekin eta ongi gaudela pentsatzeakindarra eman digu. Eguneroko bat idazten ere ari naiz, egunero zer egiten dugun bildu eta argazkiak ere ateratzen ditugu.

Zein da zabaldu nahiko zenuketen mezua?

Etxeak gelditzeak duen garrantzia azpimarratu nahi nuke. Ezinbestekoa da jendea ez kutsatzeko eta pikoa ez egoteko. Ahizpa erizaina dut eta ongi baino hobeki dakit osasun zerbitzuetan baliabide gutxiarekin dabilzala lanean. Hori batetik eta gaixotasuna etxean dutenei, animoakeman nahi nizkieke. Tartean momentu zailak eduki arren, gaixotasuna modu polit batean ere eraman daitekeela. Ongi atera daitekeela guztia eta espero dugula dena ongi ateratzea.

8.374.698 euroko aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

Europako epaia betez 281.308,14 euro erabiliko dira kontratu administratiboa duten langileen gradua ordaintzeko

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 12an egindako ez ohiko osoko bilkuran Udaltzazak EH Bilduren, Baztango Ezkerraren eta Geroa Baiaren aldeko hamar bozkekin Baztango aurrekontuari eta udaleko plantillari hasierako onespina eman dio. Navarra Sumako hiru hautetsiek kontra bozkatu dute.

Erakunde bakoitzaren aurrekontuari buruz Udalekoa 7.609.496 eurokoa da, Udal Ikastolakoa 734.200 (Nafarroako Gobernuak hitzarmen bidez finantziazten du), Zahar Etxeakoa 147.002 eurokoa eta Giltxaurdi enpresa publikokoa 448.618 eurokoa.

Aurtengo aurrekontuak aitzineko urteetako en ildo bertsuan heldu dira. Berrikuntza aipagarriena plaza behin-betik horniturik ez duten kon-



Balleko Etxea.

tratu administratibodun langileei buruz Europak emandako epaiaren betearazteak ekarri du. Epaia gradua ordaintzeko agintzen du, eta lau urtez gibelerat eginda egin beharko da, horrela, 2015-2019 aldirako 224.612,13 euro bideratuko ditu udalak. Horri, 2020tik aitzinerat kontsolidatzen den 56.695,83 euroko kopurua gehitu behar zaio.

Gertakari horrek udalak inbertitzeko duen ahalmena

mugatu du. Horrela, nahiz inbertsioen atala 743.997 eurora ailegatu, udalaxearen gain gelditzen dena 212.302 eurokoa da. Inbertsioen atalean larrialdi zerbitzuetarako tokia egiteko Oronozko osasun etxeko handitze lanak heldu dira, 348.000 euroko aurrekontuarekin, Nafarroako Gobernuak %100 finantziazuta.

Bertzalde, inbertsio garrantzitsuenak diru-kopuruaren arabera hauek dira: mendiko lanak, 152.276 euro; Erratzuko Azkarate auzoko bidea hormigoiztatzen hastea, 44.000 euro; Udaleko bideak garbitzeko sasiak mozteko makinaren erosketa 39.350; eskoletako lanak 37.750 euro; nekazaritzako azpiegiturak 28.801 euro eta Irurritako Dorrearako sarbidea 19.750 euro.

Gainerakoan udaleko zorra 2020ko urtarrilaren 1ean 3.791.831,97 eurokoa zen, 2019ko kontuen likidazio arrikuspenean heldu diren sarriaren %45,99koa; legeak paratzen duen %110eko mugatik urrun.

Hasierako onespina emanda aurrekontuen proiektua aldizkari ofizialean argitaratuko da, hilabete batez jendeen aitzinean egoteko.

BRT galera ekonomikoet aitzin egiteko laguntza eske

Koronabirusak eragindako «egoera larria» dela eta, Baztan Rugby Taldeak martxoaren 28an egitekoa zuen gaupasa bertan behera utzi behar izan du. Gaupasa horretan lortutako diruarekin jokalarien fitxak ordaindu ohi dituztenez, federazioari 7.000 euro ordaindu beharko dizkiotela nabarmendu dute. Galera horiei aitzin egiteko eta federazioari ordaindu ahal izateko, BRTko kide egiteko deia egin dute: «30 euroren truk gaupasara sartzeko aukera eta afaria, bidaietan eta taldeko arropa edo materialetan deskontuak... izanen dituzue». Gaineratu dutenez, «egoera bere onera bueltatzen denean» gaupasa egingen dute.



BRTko kide egiteko deia egin dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alerta egoeran ezin da larrerik erre

Alarma egoeran, larreak hobetzeko erreketa debekatuta daudela gogorarazi du Nafarroako Gobernuak. Halere, egunotan nahita piztutako suak izan dira, Erratzun, Azpilkuetan, Arizkunen eta Lekarozen (argazkian). Oronozko suhiltzaileek «arduratsua eta zentzudunak izateko» eskatu dute.



JUAN MARI ONDIKOL

Bertan elkartearen komertzio txartela

Bertan merkatarik elkartea eta Nafarroako Rural Kutxak hitzarmena sinatu eta komertzio txartela aurkeztu dute. Txartel horrek, Bertan elkarteko bezeroei banku eragiketetan baldintza hobekak ekarriko dizkie eta «gure bezeroen fidelizazioan urrats handi bat emanen dugu», diote Bertaneko ordezkariak.



Besta antolatzen lanean segitzen badute ere, ezin jakin oraindik Baztandarren Biltzarrako orgak ikusterik izanen den. ARTXIBOKOA

Baztandarren Biltzarra ospatzea ere kinka larrian dago

Egoera beltza den arren, besta antolatzeko lanean segituko dute, Baztani egiten dion ekarpen sozial eta ekonomikoagatik

TTIPI-TTAPA

Hankaz goiti paratu du Euskal Herriko gizartea eta ekonomia Covid-19 birusak. Orain egoera beltza den arren, baikorra izan nahi du Baztandarren

Biltzarra elkarteak. Bada aukera uztaileko, halako bestak egiteko debekua kentzekoa. Hortaz, agintariek baimena emanen balute, zailtasunak zailtasun, besta egitea da Baz-

tandarren Biltzarra elkartearen nahia. Izan ere, ezin da ahaztu, baztandar guztien bestak ekarpen handia egiten duela bai eremu sozialean, baita ekonomikoan ere. Izan ere, herritarretzat ez ezik, besta bertako ostatu, landetxe eta komertzio ttikientzat data arras garrantzitsua da.

Boluntarioen lana ezinbertzekoa

Zailtasunak ez dira soilik birusak eragindakoak. Izan ere, Baztandarren Biltzarraren antolakuntza taldean arras lagun gutti ari dira lanean.

Ondorioz, aurten ez da tonbolarik izanen. Beraz, urte hauetan guztietan emandako laguntza eskertu nahi die tonbolarik parte hartu duten merkataritza guztiei elkarteak. Egoera zaila gainditu eta garai ilunak argitzea ahalbidetuko duen besta aitzinerat ateratzeko, ezinbertzekoa izanen da boluntarioen lana. Elkarte boluntario sare bat sortzeko lanean ari da, besta behar den bezala ospatu ahal izateko. Aitzinerago jakinaraziko du elkarteak boluntario sareko parte izan nahi dutenek eman beharreko pausoak zeintzuk diren.

Basaizea elkartearekin elkartasuna

Azkenik, Baztandarren Biltzarra elkarteak babes osoa adierazi nahi dio Basaizea elkarteari. Izan ere, koronabirusak sortutako egoera latzak behartuta, apirilean 26an, Baigorri ospatzeko zen Nafarroaren Eguna bertan behera uztea erabaki du elkarteak. Apirilerako prestatua zuten Kulturaldia ere ez dute eginen. Beraz, Basaizea elkarteak ekitaldi guztiak utzi behar izan ditu bertan behera pandemiaren ondorioz.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

BRIKO LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Merkatariengan ere kezka eta beldurra sortu du egoerak

Merkatarien ustez alarma-egoera luzatzeak «egoerari buelta emateko zailtasunak» eragin ditzake

NEREA BAZTERRIKA

Koronabirusak eragindako egoeraz solastatzean, beldurra eta kezka antzematen da merkatarientan. Karrikak hutsik eta denda gehien-gehienak itxita daude eskualdean. Eli-kagaiak, botikak eta prentsa saltzen dutenak bakarrik ireki ditzakete atea eta zenbait kasutan horiek ere «ordutegiak murriztu» egin dituzte, «oso jende gutxi dabilenez, irekitzea alperrik delako».

Lanean ari direnak Osasun Sailak emandako aholkuak «zorrotz» betetzen ari dira eta



bezeroei ere horixe eskatu diete.

Alarma-egoeraren iraupena da ahoz aho darabiltena, egoera luzatzeak «egoerari buelta emateko» zailtasunak eragin ditzakeelako.

«Momentuz ez gaude horren gaizki baina epe luzera irauten badu aldaketa handia ekarriko digu»

JOXERRA INTXAUSTI

LEITZA (MAIMUR LIBURU-DENDA)

«Izan zitekeena kontuan hartuz, pozik» dago Joxerra Intxausti. «Prensari esker eta hori ateratzen den bitartean» lanean ari dira Leitza Maimur liburu-dendan. Dena den, eragina antzeman dute: «goizez bakarrik irekitzen dugu, arratsaldetan inor ez dabilelako eta tabernetara egiten nituen banaketak ere gutxitu dira. Harpidetza dutenei eramaten diet». Jendearengan «beldurra» antzematen du, eta ez da gutxiagorako.



Joxerra Intxausti.

Epe luzera «egoera kezkgarria»

Izan ere, epe luzera begira «aldaketa handia» ekarriko duelakoan dago: «enpresa askok itxi egin behar izan dute eta gero berriz martxan hasteko...». Dena kate bat da eta «guztiongan» eraginaren duela adierazi du: «ondokoa ongi dagoenean gu ere ongi gaude, baina gaizki badabil gu ere ez gara ongi ibiliko».

«Lanez lepo gauden arren egoera ez da guk nahiko genukeen bezalakoa»

EDUARDO PEREZ

BERA (ERROTAZAR HARATEGIA)

«Jendeak erosketak herrian egiten dituela» sumatu du Eduardo Perezek bere eguneroko lanean. Lehendabiziko egunetan bereziki, «jende aunitz etortzeaz gain, erosketa handiak egiten zituzten eta izituta zeudela» antzematen zen. Pixkanaka, «gutxiago erosten» ari direla nabaritu duten arren, lan karga handiarekin segitzen dute.



Eduardo Perez.

Sentsazio «ez oso ona»

Lana dutelako «kontent» dauden arren, «sentsazioa ez dela ona» gaineratu dute. Izan ere, segurtasuna bermatzeko, denda barrenean «bi lagun bertzerik ez» dituzte onartzen eta «kanpoan jendea denbora luzez pilatuta izateak amorrua eragiten du». Iraupenari begira, «beldurra» adierazi dute: «hau luzatzen bada, egoerak ezegonkortasuna sortuko duelako».

«Denda lepo beteta izan eta atea itxita izateak nahigabe handia eragiten dit»

MAITE ZOZAIA

DONEZTEBE (MAITE MODA)

Egoera «zaila» bizitzen ari da Maite Zozaia. Koronabirusak «denboraldi hasieran» harrapatu du: «denda udaberriko arrokekin beteta dut eta hori ezin dugu atera».

Momentu «txarren txarrenean» itxi behar izan ditu dendako atea: «beherapenetan izan balitz ez litzateke gauza bera izanen, erosita-koa ordaindua izanen nukeelako. Orain, berriz, dena berria da eta hor milaka euro daude, atera ezinik...».



Maite Modako arduraduna.

Irabazirik ez, gastuak bai

Hori gutti balitz, «aseguruak, autonomoen kuota, lokalaren alokairua eta bertzelako hamaika gastu» ordaindu behar izanen dituzte. Okerrena, «noiz arte iraunen duen ezin jakitea» da: «denboraldia aitzinera doa eta horri buelta ematea ezinezkoa izanen den arren ea lehenbailehen pasatzen den».



Garai bateko mugen kontroletatara itzuli gara. Horra hor Gaineko-bentakoa.



San Jose bestako zubian, aparkaleku honek lepoz beteta behar zuen. MARIFA ETA KORO

Palazioa eta Irietxea bakarrik daude irekita

Zugarramurdi eta Urdazubiko gaztetxo talde batek haurrak zaintzeko edo mandatuak egiteko zerbitzua eskaintzen du

MARIFA ETA KORO

Nola ez, ditxosozko koronabirus horrekin hasiko ditugu berriak. Bazter guztietan bezala, gure herrian ere ia-ia dena itxita dago. Irekita dauzkagun bakarrak, eguneroko erosketak egiteko Palazioa eta azien den pentsutarako Irietxea dira.

Bertzalde, estimatzekoa da Zugarramurdi eta Urdazubiko gaztetxo talde batek (zazpi denetara) martxan jarri duen laguntza-sarea. Beraietako edozeini deituz, haurrak zaintzeko edo adinduei mandatuak egiteko laguntza emanen dute. Zenbakiak hauek dira: Onin-

tza (661 875 906); Julene (667 873 490); Josebiñe (688 688 308); Itziar (630 700 206); Unai (681 383 768);

Eta bakoitzak bere gisara laguntzen duenez, martxoaren 17ko arratsaldean elizako ez-kil joaldi bat izan zen, horrekin batera otoitzak egitera konbidatuz, eri daudenen alde eta baita ere beraiek zaintzen dituztenen alde. Ondotik, apezak elizako atetik bedeikazio bat bota zuen.

Bertzetik, martxoaren 21ean sutea izan zen Arleun mendian. 11:00 aldera piztu eta arratsalderako itzalita zegoen.



MARIFA ETA KORO

Ehitoneko bidegurutzetik Sartzarreraino

Duela urte pare bat egin zen zolaberritze lanaren segidan egiten ari dira orain Ehitoneko bidegurutzetik Sartzarrerainokoan. Bidea zabaltzen ari dira, bazterreko aldea garbitu eta errekastalia zimentatuz. Denetara 250 metro dira hobetuko direnak.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net 943 616 587
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Dantxarinean kontrolak ezarri zituen poliziak, arrazoi jakinik gabe ezin baitzen Ainhoatik Urdazubira pasatu. JUAN MARI ONDIKOL

Ostatu eta bentek ezin ireki eta saioak bertan behera

Irurritako dantza taldeak eskaini beharreko saioa eta jubilotekak antolatutako antzezlana gibelatu dituzte

ARANTXA ETA IRAIA

Anitz dira egun hauetan bizi dugun egoeratik bertan behera utzi diren emanaldiak. Irurritako dantza taldeak *Izarrak* emanaldia eskaini behar zuen martxoaren 21an Urdazubiko frontoian, baina Covid-19a dela eta, atzeratu da. Harremana jubilotekak martxoaren 28rako antolatuta zuen *Algo habrá hecho* antzezlana ere bertan behera gelditu da.

Ostatu eta bentak ere ezin ireki

Karreterok oraindik ez ditu atek ireki, koronabirusa dela eta. Koxka ere itxi dute, Dantxarinear dagokionez, martxoaren 14an jende anitz ibili zen denda guztiak hustu nahian eta ahalik eta eresketa handienak egiten saiatu ziren. Ondorengo egunetan, jende gutti ikusi da bentetan, astelehenean muga hetsi zutenetik batez ere. Hortaz, supermerkatu zerbitzua bakarrik eskaintzen zuten benta batzuk

itxi behar izan dira. Aspaldi ez dugu Dantxarinea hain hutsa ikusi. Halere, Biok taldeak supermerkatua mantentzeaz gain, etxerako zerbitzua ere abian jarri du.

GAZTE TALDEA LAGUNTZA ESKAINTZEKO PREST DAGO



Bentetako aparkalekuak hutsik daude aste hauetan. JUAN MARI ONDIKOL

Dantxarineko Komertzianteen Elkarteko presidentea den Txomin Iribarrenek aipatu duenez, «okerrena da ez dakigula noiz arte egonen garen horrela, baina ez dugu dena beltz ikusi behar. Denei eragiten digu egoera honek, baina aterako gara aitzinera!».

Laguntza eskaintzeko gazte taldea prest

Zugarramurdi eta Urdazubiko gazte talde batek Covid-19a dela eta zailtasunak izan ditzakeen eskualdeko orori laguntza eskaintzeko boluntario talde bat sortu du. Adineko pertsoneri erosketak egiten, haurrak zaintzeko zailtasunak dituzten gurasoei edo edozein laguntza behar duen pertsoneri zuzenduta dago ekimen hau. kontaktuak: 600669623 (Arantxa), 661875696 (Onintza) eta 618962078 (Iraia).

Nafarroaren Eguna ez da ospatuko aurtengoan Baigorriin

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, apirileko Kulturaldi zabala prestatua zuen Baigorriin Basaizea Kultur Batasunak, Nafarroaren Eguna-ekin borobiltzeko asmoarekin. Koronabirusak eragindako egoera dela-eta, Kulturaldia, bere osotasunean, bertan behera uztea erabaki du Basaizeak. Beraz, aurtun ez da Nafarroaren Egunik izanen.

Basaizea Kultur Batasunak 1979tik apirilean Kultur Astea antolatzeko ardura hartua du. «Aurtun, Kulturaldiaren 41. edizioa ez da iraganen. Kulturaldia bere osotasunean ezeztatzearen erabakia hartu du Basaizea elkarteak, koronabirusaren ondorioz plantan ezarriak diren neurriak ikusirik. Hala ere, programatuak ziren ekitaldi hauetarik batzu beste noizbait proposatzea espero dugu», dio oharrak.

Hilabete osoko Kulturaldia prestatu zuen alta Basaizeak, sei hitzordurekin: Ruper Ordorikaren kontzertua, antzerki eta zinema emanaldiak, mahai-ingurua, Uztaritzeko txistularien emanaldia, Chaplinen *Urrearen sukarra* ('The Gold Rush') filmarekin zinekontzertua... eta Nafarroaren Eguna. Aitzinerago beharko dute!



Nafarroaren Eguna ez da eginen.

Battit Laborde hirugarrenean ere Sarako auzapez

Har Hitza taldeak duela sei urteko bozetan baino hautetsi bat gehiago lortu du

TTIPI-TTAPA

Bigarren itzuliaren beharrik izan gabe, martxoaren 15ean iragan zen bozen lehenbiziko itzulian erabakia gelditu zen nork osatuko duten Herriko Kontseilua. Battit Laborderen Zergatik ez taldeak, bozen %73 lortuta, jokoan zeuden 23 hautetsietatik 20 eskuratu zituen, 2014an baino bat gutiago, eta Ellande Alfaroren Har Hitza taldeak, berriz, bozen %26 eskuratuta hiru hautetsi izanen ditu Herriko Kontseiluan, duela sei urte baino bat gehiago. Gainerakoan, koronabirusaren eraginez edo, 2014ko bozekin alderatuz, parte-hartzeak 14 puntu egin du beheiti aurten.

Laborderekin batera Zergatik ez taldeko Maitxu Ibarburu, Esteban Barneix, Zofi Garbiso, Mixel Jauregi, Karmen Errandonea, Patxi Jauregi,

SARA

ZERGATIK EZ
Battit
LABORDE
1. ITZULIA



	2014	2020
Zentsoa	1.967	2.080
Parte-hartzea	1.567	1.361
Zergatik ez		20 969
Har Hitza	2 365	3 354
Sara Zain	21 1.133	
Baliogabeak	35	23
Zuriak	40	15

Pantxika Lastra, Mixel Elizalde, Amaia Saint Martin, Tomas Lafitte, Trini Devoucoux, Mathieu Brisson, Maritxu Ameztoti, Pierre Irigoien, Fafa Agirre, Pettan Errandonea, Annie Londaitz, Tati Agesta eta Antoinette Goienetxek eta Har Hitza taldeko Ellande Alfar, Marie Pierre Pradere eta Patxi Dutournierrek osatuko dute Herriko Kontseilua.

Koronabirusa tarteko hainbat neurri hartu dituzte Saran

GANEX

Koronabirusaren kontrako borrokaren kariatara, Saran ere hainbat neurri hartu dituzte. Lehenik eta behin, agendako hitzorduak deuseztatu dituzte, tartean, Eskuen Lanak elkartearen erakusketa, Iraulderean Eguna edota asteburuan Sara Korrika taldeak antolatuta egitekoak lasterketak.

Horrekin batera, ikastetxeak hetsi dituzte, baita kirol eskolak ere, eta Herriko Etxean larrialdi kasuak baino ez dituzte errezibitzen. Etxetik ateratzeko ageria behar da hori

Herriko Etxean edo honen web orrian eskuratzen ahal da (www.mairiedesare.fr).

Posta zerbitzua ere hetsia da baina Herriko Etxeko beheko aldean, kutxa bat paratua dute zerbitzuarekin ahal den neurrian segitzeko.

Bertzetik, herriko merkatariek ere eguneroko martxa alde batera utzi behar izan dute, baina harategian edo okindegietan, erraterako, zerbitzua eskaintzen segitzen dute. Eskaerak telefonoz eginez gero, denden atarian bildu daitezke erosketak.

Bozen bigarren itzulia oraingoz ekainera gibelatua

Ekainerako koronabirusa geldiaraztea lortzen bada, Frantziako Gobernuak orduan egin nahi du bigarren itzulia

TTIPI-TTAPA

Kontuak ez ziren argi gelditu Senperen martxoaren 15eko bozen lehenbiziko itzulian, eta oraingoz, Herriko Kontseiluaren osaketak airean segituko du, koronabirusa tarteko, martxoaren 22an egitekoa zen bigarren itzulia gibelatzea erabaki baitu Frantziako Gobernuak. Adierazi duenez, ordurako Covid-19a geldiaraztea lortzen bada, ekainean egingen da bigarren itzulia.

Lehenbiziko itzulia

Azken sei urteotan auzapeza izan den Pierre-Marie Nousbaumen Agir Pour St Pee (Senpererentzat Ekin) taldea izan zen boz gehien bildu zituena martxoaren 15ean, baina alde tikiarekin nagusitu zen, Dominique Idiart buru duen Elgarrekin taldeak baino 21

SENPERE

SENPERERENTZAT EGIN
Pierre-Marie
NOUSBAUM
1. ITZULIA



	2014	2020
Zentsoa	4.501	5.113
Parte-hartzea	3.295	2.894
Senp. Ekin	1.264	1.192
Elgarrekin	1.389	1.171
Senpere Bai	526	474
Baliogabeak	16	38
Zuriak	100	19

boz gehiago lortu baitzituen. Hirugarren indarra Jean-François Bederederen Senpere Bai talde abertzalea izan zen eta 474 botorekin.

Bertzetik, duela sei urteko datuekin alderatuz, erroldak goiti egin badu ere, orduan baino boz-emaile gutiago izan ziren lehen itzulian. 2014tik honat parte-hartzeak 16,6 puntu egin du beheiti.

70 urtetik goitikoei erosketak egiten laguntzeko zerbitzua abian

TTIPI-TTAPA

Koronabirusaren zabalkundea geldiarazteko helburuarekin, ikastetxeak martxoaren 16an itxi zituzten eta horrez gain, hainbat hitzordu gelditu dira bertan behera, bai kultur ekitaldiak, baita kirolari lotutakoak ere: txapelketak, entrenamenduak edota bilkurak.

Herriko Etxean, berriz, aurrez aurreko arretarik ez dute eskaintzen. Herritarren eskaerak e-mailez (contact@senpere64.fr) edo ohiko ordutegian (09:00etatik 12:00etara eta 13:30etik 17:00etara) 06 26 78

3323 telefonora deituz artatzen dituzte. Hondakinen bilketa sisteman ere gutieneko zerbitzuak eskaintzen ari dira: garbiguneak hetsiak daude eta etxeko hondakinen bilketa maiztasun tikiagoarekin egingen ari dira.

Bertzalde, 70 urtetik goitikoei deitzeko konpromisoa hartua dute. Erosketak egiteko laguntza behar izanez gero, horretarako norbait bidaliko dute etxera. Lerro hauen idazterakoan etxe etxe jatekoa eskaintzeko zerbitzua mantentzeko asmoa zuten.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. 80 m²ko pisua salgai. Lehenbiziko solairuan, erdigunean kokatua, Altzate karrikatik hurbil. Guztiz berriua dago, sukaldea estreinatua gabe. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutti ditu, atezainarekin. ☎608 77 79 26.

BERA. Eztegarra karrikan, Ezkerrekoa etxean pisua salgai edo errentan emateko. 72m² ditu, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela bainugela eta trasteleku ederra. Sukaldea eta logela hegoaldera begira. Pasiloan paretako armairu ederra. Igogailua, gas naturala, PVC leihoak, berogailua. ☎636 58 10 66.

DONEZTEBE. Zazpigarutuzten 102 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Ganbara eta igogailuarekin. Garaje komertziala ere bai. ☎669 08 01 61.

ELIZONDO. Apartamentua salgai. 2 logela, komuna, sukalde zabala, egongela zabala eta trasteleku. Igogailuarekin. ☎680 45 68 74.

ERRENTAN HARTZEKO

GOIZUETAN EDO INGURUAN. Bikote bat logela edo pisu bila. ☎602 53 67 29.

ERRENTAN EMATEKO

BURLATA. Ikasle pisu batean logela bat errentan emateko apirilean, maiatzean eta ekainean. ☎659 82 66 09.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Iparralde karrikako 1. zenbakian 40 m²ko lokal komertziala errentan emateko. Komuna dutxa eta guzti. ☎608 77 79 26.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Hotel batean harreragilea behar dute, esperientzia duena eta hizkuntzak dakizkiena (frantsesez eta ingelesez naturaltasunez egiten duena). Bidali curriculum argazkiarekin: info@hotelchurrut.com.

DANTXARINEA. Maspormenosen jendea behar dute asteburuetan lan egiteko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterkariendako, kanpoko jardueretarako... Bidali curriculum: info@maspormenos.net. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

BERA. Hortz klinika batean auxilia-rra behar dute. Bidali curriculum: bhortzklinika@gmail.com. ☎948 63 16 31.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegaberen erantzukizunik

ESKARIAK

Esperientziadun emakumea lan bila. Adinduak zaintzen, ostalaritzan... lanean aritzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎641 85 26 77.

Haurrak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Pertsona adindua, umeak, garbitasunean... aritzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎641 85 26 50.

Eraikuntzan eta animaliak zaintzen esperientzia duen gizonetako lan bila. Edozein arlotan lanean aritzeko prest, ordutegi malgua. Ingelesez solas egiten du. ☎641 85 26 63.

Emakumezko bat goizez orduka aritzeko lan bila: garbiketan (etxeak, igerilekuak, ostatuak...) edo haurrak zaintzen aritzeko prest. ☎688 71 59 58.

Neska arduratsua lan bila. Erizaintzako oinarrizko ikasketak eginak eta adinekoak zaintzen aritua eta erreferentziakin. Interna gisa nahia-go. ☎674 44 82 79.

ANIMALIAK

SALGAI

Urte bateko txakurra salgai. Mestizoa, Border Collie eta artzain txakurrarena. Txertoak emanak ditu eta txiparekin. ☎616 16 48 47.

MOTORRAK

SALGAI

Fiat Scudo 1.9 diesel-a salgai. Lo egiteko prestatua. Mantenimendua egunean (fakturak). Ohe egitura eta koltxoirekin. Leihoentzako aislan-teak. Engantxatzeko bola. 346.000

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun inguruokoa).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 180,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,65/6,25
- 8-10 kilokoak: 4,60/5,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 86 €

Zerri gizona 1,540 €

Zerramak 0,890€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

km. Ikustea hobe. Salneurria: 2.200 euro. ☎628 15 70 84.

DENETARIK

SALEROSKETAK



Altzariak salgai. Etxe sarrerako pertxeroa eta bi oheko habi-ohea salgai. ☎637 99 39 39.



UNCETA markako **lanerako mahai profesionala** salgai, altuera aldagarria. Hagitz sendoa eta hainbat osagarri: kajonera, oinendako pausalekua, dokumentuendako banderaja, argia... 1,5 x 0,75 metro, altuera 0,7tik metro batera. ☎616 29 54 20.

Belar fardo tikiak salgai. ☎618 96 27 74.



Haritz egurrekin egindako logela salgai (bi mesanotxe eta 1,35 metroko ohea, somierrarekin, koltxoirik gabe). Hagitz egoera onean. Prezioa 300 euro. ☎685 76 44 00.

ALKAIAGA. Belar-fardoak salgai. ☎948 63 04 19.

GALDU-AURKITUAK



BERA. Otsailaren 28an, N-121-A errepideko mozketaren ondotik, giltza sorta bat aurkitu dute Agerrako industrialdean. ☎619 76 95 12.

AVIA
E.S. SANTESTEBAN

AdBlue
surtidorea jarri dugu

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679
www.doneztebe.com

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegia

Ibardin-BERA | T. 00 34 948 63 03 02
www.mendikoiardin.com

Karta ere badugu!

Kulturkari.com

- Logotipoak
- Txartelak
- Oroigarriak
- Argitalpenak
- Egutegiak
- Boletok
- Rotuloak
- Panelak
- Poltsak
- Kamisetak
- Boligrafoak

948 635 458
kulturkari.com

GOITI ETA BEHEITI



Oraingoz traste handiak etxean



Traste handiak kanpoan uztea debekatuta badago ere, zoritxarrez, maiz ikusten da argazkiko panorama edukiontzien ondoan. Are gehiago, koronabirusa tarteko, zerbitzu batzuk oraingoz eten behar dituzte eta « normaltasunera itzuli arte, traste zaharrak etxean gordetzeko» eskatu dute.



Zakur kakakin aspertuta



Traste zaharren gisa, zakur kakarena ere ez da kontu berria. Gure herriko bazterrek garbi mantentzea denon ardura bada ere, eta udaletatik behin baino gehiagotan oroitarazi badigute ere, bada hori garbi ez duenik ere... Ardura ez da zakurrena, jabeena baik.

Goiti eta beheiti!

Zerbait txalotu edo salatu nahi duzu? Erakunderen bati galderaren bat egin nahi diozu? Atera argazki bat, idatzi mezu labur bat azalpenak emanez eta bidaligu!

Posta elektronikoa edo Whatsapp: Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira.

ZERBITZUAK

HERIOTZAK

- **Jerome Larralde**, Sarakoa, martxoaren 3an, 88 urte zituela.
- **M^a Angeles Sarasola Elizaga**, Elizondokoa, martxoaren 11n, 59 urte zituela.
- **M^a Jesus Bizente Irigoien**, Elbetekoa, martxoaren 11n.
- **Anna Mikulova**, Igantzikoa, martxoaren 12an.
- **M^a Patrocínio Lazkanotegi Rubio**, Berakoa, martxoaren 12an, 89 urte zituela.
- **Fernando Etxepare Agesta**, Lesakakoa, martxoaren 15ean, 71 urte zituela.
- **Miguel Angel Ezkurra Etxegia**, Urrozkoa, martxoaren 17an, 70 urte zituela.
- **Dolores Lujanbio Loiarte**, Goizuetakoa, martxoaren 17an, 90 urte zituela.
- **M^a Luisa Valdeolillos Hernandez**, Elizondokoa, martxoaren 18an, 88 urte zituela.
- **Ignacio Irazoki Etxepeteleku**, Berakoa, martxoaren 19an, 67 urte zituela.
- **Juan Jose Apezetxe Ariztia**, Iruritikoa, martxoaren 20an, 90 urte zituela.
- **Dolores Etxebarria Etxenike**, Lekarozkoa, martxoaren 22an, 102 urte zituela.
- **Julian Martinez Lusarreta**, Elizondokoa, martxoaren 25ean, 88 urte zituela.
- **M^a Pilar Garralda Telletxea**, Legasakoa, martxoaren 25ean, 81 urte zituela.

OROIGARRIA

Ignacio IRAZOKI ETXEPETELEKU

Bera, 1953-2020

Eskerrik asko une hauetan babesa eta elkartasuna adierazi diguzuen guztiei, baita hainbat bidetatik eta sare sozialetatik ailegatu zaizkigun mezuengatik ere.

FAMILIA



URTEURRENA

Balaxi ANDRESENA ZUBIGARAI

Legasan, 2019ko apirilaren 15ean

I. urteurrena

Itsasoak eraman zintuen, orain guk zure mendietan sentituko zaitugu.



ZURE FAMILIA



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

URTEURRENA



Balaxi ANDRESENA ZUBIGARAI

2019ko apirilaren 15ean

Usategietan eta gure bihotzean beti.

ZURE ILOBAK

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritarra

948 63 74 04 / 948 19 70 70



Aseguru guztiekin lan egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

KONTATU KONTUAK



Errigorako saskiak TTIPI-TTAPAREN eskutik. Errigoraren udaberriko kanpainaren barrenean, TTIPI-TTAPAK lau saski zozketatu ditu Ttipi-Txartela duten harpidedunen artean. Ttipi-txarteldunak zuzenean sartu dira zozketan eta honako hauek izan dira saridun: Erratzuko Izaskun Iturriria Ormart, Irurritako Alicia Arraztoa Mendikoa, Sunbillako Bittori Jaimerena Etxebere eta Berako Joxean Lizardi Trantxe. Argazkian, Aitor Arotzena TTIPI-TTAPAKO zuzendariaren eskutik saria jasotzen ageri dira, martxo hasieran.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berrikeri eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzazuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidalgizu argazkia info@ttipi.eus helbidera edo Whatsapez 744 48 43 61ra.

EZKONTZAK

- **Pedro Jose Alzuri Aiora** eta **Cristina Loiarde Lopez**, Sunbillakoa eta Elizondokoa, martxoaren 14an Sunbillan.

SORTZEAK

- **Markel Mendikoa Maia**, Etxalarkoa, martxoaren 11n.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.


URTEBETETZEAK



Aiert Baleztena Goñi eta **Manex Goñi Errandoneak** 5 eta 3 urte beteko dituzte apirilaren 4an eta martxoaren 30ean. Zorionak familia guziaren partetik.



Endara Larzabal Arriola sunbillarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 22an. Egun zoragarria izan dezazula opa dizute ataxi Xalba eta ama-txi Margarik.



Iraitz Astibia Garmendia leitzarrak 24 urte bete ditu martxoaren 28an. Zorionak eta urte askoz, **Iraitz!** Animo kuarentena! Jijiji....



Egoi eta **Eñaut Bidart Zabaletak** urteak bete dituzte martxoan eta urtarrilean. Zorionak bikote!!! Segi beti bezain jator, aupa txapeladunak!!! Etxeko partetik.



Erratzuko **Iker Iturburua** eta **Enaitz Bikondok** martxoaren 11n eta 18an urteak bete dituzte. Zorionak etxeko partetik eta bereziki Naroa eta Haritzen partetik.



Sunbillako **Maidar Petrirenak**, apirilaren 10ean, urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guziaren partetik eta bereziki Iraide, Garaine, Ibai eta Anderren partetik. Afari goxo-goxoa prestatu, **ixeba** !!! Muxuak.



Ezkurrako **Ramona Juantorenak** 88 urte bete ditu martxoaren 19an. Aurten zure egunean ezingo gara denak elkartu baina horrek ez du esan nahi elkarrekin ez gaudenik. Aurrerago ospatuko dugu eta merezi bezala muxu eta besarkadez josiko zaitugu. Zorionak ama, amaxi eta birramona.




Iraia Sein Ariztegi iturendarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak familia guziaren partetik eta muxu haundi-haundi bat!!



Irati Etxeberria Martinek 2 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak gure printzesa ttikiari!! Aita, ama, Naroa eta Elizondo eta Elgorriagako familia.



Beñat Agara Hernandez beratarrak bi urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak pottoko, ederki ospatuko dugu!!



Narbarteko **Iraia Martin Argainek** 8 urte bete ditu martxoaren 24an eta **amatxi Kontxik** apirilaren 8an 70. Zorionak familia eta bereziki Juneren partetik.

PLAZAN BAZAN


MARIPURTZIL

PELLOZIRI



DOMINOAN

Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiarri)



Marraz itzazu
lauki zurietan
falta diren irudiak,
dominoak zentzua
izan dezan.

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



KALEKO DANTZARIAK

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak.
Hamabi dira guztira.



- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eu | erran.eu

www.ttipitxartela.info

754 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Jose M^o Organbide Daggerre | ELIZONDO
Buatxabal - Kamiseta bat
Amaia Iparragirre Baleztena | LEITZA
La Rhune - 2 sarrera
Blanca Perez Ganboa | ETXALAR
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Itziar Irigoien Perurena | DONEZTEBE
BKZ abentura - 2 sarrera
M^o Lourdes Baleztena Monako | ERATSUN
Astizko lezeak - 2 sarrera
Luis Garcia Nagore | ORONOZ-MUGAIRI
Katxiporreta - Liburu bat
Fermina Etxart Maia | URDAZUBI
Katxiporreta - Liburu bat
Laura Zabaleta Atxutegi | ARESO
Katxiporreta - Liburu bat
Paula Etxeberria Irigoien | BERA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.eus



2 sarrera helduentzat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com



2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

MUSIKA



- 3 lote

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eu

LA GUNTZAI LEAK



www.okilletailerraesp.blogspot.com.es



www.martiko.com